

ekar

ekar

Euskal Herriko biztanleen
irakurketa eta musika ohituren
merkatu ikerketa

2017



Berio Pasealekua 11, 20018 Donostia
Tel. (+34) 943 31 00 34
siadeco@siadeco.eus / www.siadeco.eus



Siadeco^x
ikerketa aplikatua

Aurkibidea

Sarrera	4.
1. Metodologia	6.
1.1. Metodologia	7.
1.2. Fitxa teknikoa.....	9.
2. Aztertutako biztanleriaren ezaugarriak	10.
2.1. Ezaugarri sozio-demografikoak.....	11.
2.2. Ezaugarri linguistikoak	14.
2.3. Hedabideen kontsumoa	18.
2.4. Sare sozialen erabilera	21.
2.5. Euskal kulturarekiko gertutasun-maila	24.
2.6. Etxean bildutako liburu eta musika euskarriak.....	26.
3. Irakurketa-ohiturak	28.
3.1. Liburu irakurleak	29.
3.2. Euskarazko eta erdarazko liburuen irakurleak	30.
3.3. Irakurtzeko motibazioa.....	31.
3.4. Liburuen formatua.....	31.
3.5. Irakurketa generoa.....	32.
3.6. Euskarazko irakurketan eragiten duen alderdia.....	34.
3.7. Irakurketa-ohiturei buruzko adierazleen grafikoak	35.
3.8. Irakurketa-ohituren joera aldaketak.....	42.
4. Liburuen erosketa	46.
4.1. Liburu erosleak	47.
4.2. Mailegu bidez eskuratutako liburuak	48.
4.3. Doan eskuratutako liburuak	49.
4.4. Liburuen erosketa-ohituretako adierazleen grafikoak	50.
4.5. Liburuak erosteko tokirik ohikoenak.....	55.
4.6. Liburuen erosketarako informazio-iturriak.....	59.
4.7. Liburuen aukeraketarako faktoreak.....	62.
4.8. Liburu-denden aukeraketarako faktoreak	65.

5. Musika kontsumorako ohiturak	67.
5.1. Adierazle orokorrak.....	68.
5.2. Musika-diskoen erosle direnen ezaugarriak.....	74.
5.3. Formatu digitaleko musika erosi egiten duten eta doan eskuratzen dutenen ezaugarriak.....	77.
5.4. Musika-diskoen aukeraketarako faktoreak.....	79.
5.5. Musika kontsumorako ohituretako joera aldaketak	82.
5.6. Kontzertuetako entzuleak	86.
6. Ondorioak.....	122.
7. Eranskinak	133.

Sarrera

Elkar Taldearentzat Siadeco Ikerketa Elkartek Euskal Herri mailan egindako inkesta zabal baten emaitzak jasotzen dituen txostena da hau. Izaera kuantitatiboa du ikerlan honek

Liburugintza eta musikaren industriari loturiko kontsumo-ohituren azterketa sektoriala egitea: eskariaren ikuspegitik, Euskal Herriko 15 urtez gorako biztanleen irakurzaletasun-maila, liburuen erosketa-maila edota musikaren kontsumorako ohiturak aztertu dira. Euskarazko eta erdarazko kultur produktuen kontsumoa neurtu da, eta biztanleen ezaugarri sozio-demografiko eta linguistikoen araberrako aldeak zenbatekoak diren ikusi. Bestalde, bai liburuetan eta baita musikan ere, formatu digitaleko euskarrien egungo erabilera-maila eta joera-aldaketei buruzko datuak ere bildu dira.

Txostenak, ondoko 7 atalen araberrako egitura du:

1. Metodologia

Ikerketa kuantitatiboa egiteko erabilitako metodologiaren xehetasunak eta inkestaren fitxa teknikoa zehazten dira.

2. Aztertutako biztanleriaren ezaugarriak

Ezaugarri sozio-demografikoak linguistikoak, hedabideen kontsumoa, sare sozialen erabilera, euskal kulturarekiko gertutasun-maila eta herritarrek etxean dituzten liburu eta musika euskarrien kopuruei buruzko informazioa dago bigarren atalean jasoa.

3. Irakurketa-ohiturak

Liburu-irakurleak diren herritarrak, euskarazko eta erdarazko liburuen irakurketa-maila, irakurtzeko motibazioa, liburuen formatua, generoa eta irakurketa-ohituretako aldaketen azterketaren datuak biltzen dira bertan.

4. Liburuen erosketa

Liburu-erosleak diren herritarrak, maileguan eskuratutako liburuak, doan eskuratutakoak eta liburuen erosketarako tokiei buruzko informazioa.

5. Musika kontsumorako ohiturak

Musika entzuleak, musika entzuteko erabilitako gailu eta euskarriak, musika estiloa, musika diskoen eta formatu digitaleko musikaren erosle direnen ezaugarriak eta musika kontsumorako ohituren aldaketak.

6. Ondorioak

7. Eranskinak: taula estatistikoak

1

Metodologia

1.1. Metodologia

Elkar Taldea eta Euskal Herriko biztanleen irakurketa eta musika ohiturei buruzko azterketa kuantitatiboa egiteko, telefono bidez guztira 2.500 lagun elkarrizketatu dira. Inkestaren ezaugarri teknikoak, ondorengoak dira:

- **Unibertsoa:** Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko biztanleria, 2,6 miloi pertsona inguru.
- **Informazioa biltzeko sistema:** galdetegi egituratu baten laguntzarekin, telefono bidez elkarrizketatu dira lagin unitateko pertsonak.
- **Laginketa- modua:** ausazko laginketa geruzatua egin da, lurralde bakoitzean inkestatu beharreko euskaldun eta ez euskaldunen kopuruak, modu ez proportzional interesatuan erabakitakoak izan dira. Lurralde bakoitzeko euskaldun eta ez euskaldunen artean egin beharreko inkestak, habitataren edo udalerrien tamainaren arabera proportzionalki banatu dira (Nafarroan habitata eta euskararen ezagutza konbinatu dira), ibilbideen metodoa erabiliz, eta adin-tartea, sexua eta euskararen ezagutza maila kontrolatuz. Inkestatu beharreko lagineko elkarrizketatuen aukera, bi fasetan egin da; lehenengoan inkesta egin beharreko etxebizitza modu aleatorioan aukeratu da, eta bigarreanean, etxe bakoitzean inkestatu beharreko pertsona.
- **Datu orokorrak haztatu egin dira** hizkuntza ezagutzaren, adin-tartearen eta lurraldearen arabera.
- **Laginaren tamaina eta errore marjinak:** unibertsoaren lagin adierazgarri modura 2.500 inkesta egin dira. Haztatutako datuen errore-marjina estatistikoa $\% \pm 2,00$ koa da, $\% 95,5$ eko konfiantza-tarterako (ausazko laginketa sinplea eta $p=q=0,5$ denean). Ondorengo taulan lurralde bakoitzeko unibertsoa, laginaren tamaina eta errore-marjinak agertzen dira.

1. Taula: Biztanleria, egindako inkesta kopurua, konfiantza maila eta errore-marjina estatistikoa lurraldeari jarraiki

	15 urte eta gehiagoko biztanleria	Inkesta kopurua	Konfiantza- maila	Errore-marjina estatistikoa
Iparraldea	238.360	340	%95,5	± 5,42
Nafarroa	535.591	440	%95,5	± 4,77
Araba	273.988	360	%95,5	± 5,27
Bizkaia	995.519	720	%95,5	± 3,73
Gipuzkoa	598.253	640	%95,5	± 3,95
Guztira	2.641.711	2.500	%95,5	± 2,00

Iturria: EUSTAT, INSEE, Nafarroako Gobernua eta Siadeco

Ikerketa kuantitatibo honen lan faseak ondorengoak izan dira:

- 1 Gaiarekin zerikusia duen zeharkako informazio dokumentala bildu eta aztertzea: Elkar Taldearen interes-taldeekin, eta oro har, aztertutako gaiekin lotura zuzena duen zeharkako informazioa aztertu da.
- 2 Elkar enpresa taldearen identitate edo nortasun korporatiboaren inguruko zeharkako barne informazioa bildu eta aztertu da: taldearen balioak eta balio horiek landu eta transmititzeko moduak, bere produktuak, zerbitzuak, eta abar.
- 3 Inkestatze prozesua burutzeko lagina diseinatu.
- 4 Elkarrizketak egiteko galdetegi euskarria prestatu eta ontzat eman.
- 5 Eragiketaren dossier metodologikoa prestatu, baita lanerako material eta euskarri tekniko guztiak ere.
- 6 Informazio bilketarako landa-lana egin: telefono bidezko 2.500 inkesta.
- 7 Landa-lanaren jarraipen eta kontrol lana.
- 8 Informazioaren grabaketa euskarri informatikoan (datu oinarria) eta balidazioa.
- 9 Behin datuak grabatuta, bildutako informazio kuantitatibo guztiaren lanketa eta ustiaketa egin da; datuak araztu eta ponderatu ondoren, estatistika deskribatzailean oinarrituta eta SPSS programa erabiliz.
- 10 Bildutako informazioa aztertu eta interpretatu eta txosten hau idatzi da.

1.2. Fitxa teknikoa

2. Taula: inkestaren fitxa teknikoa

	LAGINA		Haztatutako %	Azterketarako UNIBERTSOA		Errore marjina
	Kop.	%		Kop.	%	
Lurralde historikoa (15 urtez gorako biztanleak)						
Araba	360	14,4	10,4	273.988	10,4	5,27
Bizkaia	720	28,8	37,7	995.519	37,7	3,73
Gipuzkoa	640	25,6	22,6	598.253	22,6	3,95
Nafarroa	440	17,6	20,2	535.591	20,3	4,77
Iparraldea	340	13,6	9,1	238.360	9,0	5,42
Guztira	2.500	100,0	100,0	2.641.711	100,0	2,00
Euskaraz hitz egiteko gaitasuna (15 urtez gorako biztanleak)						
Ezer ez	629	25,2	39,8	1.352.547	51,4	3,21
Hitz batzuk	343	13,7	22,8			
Zertxobait	147	5,9	10,8	570.506	21,7	8,25
Ez euskaldunak	1.119	44,8	73,4	1.923.053	73,0	2,99
Nahiko ongi	311	12,4	5,6	709.639	27,0	2,69
Ongi	1.070	42,8	21,0			
Euskaldunak	1.381	55,2	26,6	709.639	27,0	2,69
Guztira	2.500	100,0	100,0	2.632.692	100,0	2,00
Sexua (Biztanleria osoa)						
Emakumezkoa	1.251	50,0	50,6	1.598.843	51,1	2,83
Gizonezkoa	1.249	50,0	49,4	1.529.151	48,9	2,83
Guztira	2.500	100,0	100,0	3.127.994	100,0	2,00
Adina (15 urtez gorako biztanleak)						
16-34	556	22,2	26,1	705.720	26,7	4,24
35-64	1.356	54,2	51,7	1.353.023	51,2	2,71
>64 urte	588	23,5	22,2	582.968	22,1	4,12
Guztira	2.500	100,0	100,0	2.641.711	100,0	2,00
(2 edo 5 urtetik gorako biztanleria)						
Habitata						
<20.000 biztanle	1.221	48,8	40,3	1.246.611	42,31	2,86
>20.000 biztanle	440	17,6	21,8	664.245	22,54	4,77
Hiriburua (Iparraldean BABB)	839	33,6	37,8	1.035.550	35,15	3,45
Guztira	2.500	100,0	100,0	2.946.406	100,00	2,00

Iturriak: EUSTAT, INSEE, Nafarroako Gobernua eta Siadecoren datu estimatuak

2

Aztertutako biztanleriaren ezaugarriak

Inkestatu
ezaugarriak

2.1. Ezaugarri sozio-demografikoak

Lurraldea

Biztanle gehien dituen lurraldea Bizkaia da, 16 urtez gorako hamar herritarretik ia lau (%38) bertan bizi baitira. Hamarretik bi pasatxo Gipuzkoan (%23), zertxobait gutxiago Nafarroan (%20), hamarretik bat inguru Araban (%10) eta ia beste hainbeste Iparraldean (%9).

Adina

Adinez, 16tik 31 urtera arteko gazteek hartzen duten pisua %22koa da, 32tik 54ra arteko helduak %41 dira eta 54tik gorakoak gainerako %37a.

Lan egoera

Ikerlan honetarako aztertutako 16 urtetik gorako Euskal Herriko biztanleriaren ia erdia (%47) lanean ari da eta langabezia egoeran dago 10etik 1 pasatxo (%11). Gainerakoa, erretiratu edo ezintasun iraunkorra dutenek (%27) eta ikasleek osatzen dute (%11). Gizonezkoen artean gehiago dira lanean ari direnak (%49) emakumezkoen artean baino (%44). 16-31 urte arteko gazteen artean berriz, ia erdiak (%48) ikasleak dira eta hirutik batek (%32) egiten du lan. 32-54 urte arteko helduetan 10etik 8k lan egiten dute (%78) eta 54 urtetik gorakoetan, 10etik 7 erretiroa hartutakoak dira (%70).

Ikasketak

Goi mailako lanbide heziketako ikasketak eginak dituztenak, lizentziatuak edo graduatuak dira ia erdiak (%48); bigarren mailako ikasketadunak (DBH, Batxilergoa edo Lanbide Heziketako Gradu Ertaina) %36 eta lehen mailako ikasketak dituztenak gainerakoak (%16).

Jaiolekua

Lautik hiru Euskal Herrian bertan jaiotakoak dira eta bat Euskal Herritik kanpo, horietako gehienak Espainian. 55 urtetik beherakoan artean gehiago dira Euskal Herrian bertan jaiotakoak (%78), 55 urtetik gorakoan artean baino (%68), non nabarmen gehiago diren Espainian jaiotakoak (%26). Euskal Herria, Frantzia eta Espainiatik kanpo jaiotakoan portzentajeak gora egiten du adinean behera egin ahala (%10 dira 31 urtez beherakoetan, eta aldiz %2 55 urtetik gorakoetan). Ipar Euskal Herrian, nabarmen gehiago dira Frantzian

jaiotakoak (%34), Hego Euskal Herrian Espainian jaiotakoak baino (gutxien Gipuzkoan, -%14- eta gehien Bizkaian -%20-).


Etxeko egitura

Hirutik bat bikote eta seme-alabez osatutako etxe edo familiatan bizi da eta %28 bikoteaz soilik osatutakoetan. %16 gurasoekin bizi dira, eta %13 bakarrik. Ipar Euskal Herrian, gehiago dira bakarrik bizi direnak (%22) eta senar-emazte edo bikotearekin soilik bizi direnak (%32); eta gutxiago gurasoekin bizi direnak (%7).

Diru-sarrerak

Etxeko diru-sarrera garbiez galdetuta, inkestatuen laurden batek ez dio galdera horri erantzun. Erantzun dutenen artean, lautik baten kasuan (%25), etxeko kide guztien hileko diru sarrerak 1.000-2.000 euro artekoak dira eta beste batenak (%24) 2.000-3.000 euro artekoak. Mila eurotik behera %13 eta 3 milatik gora, beste hainbeste (%13). Gizonezkoetan diru-sarrerak altuagoak dira, eta lurraldearen arabera, Iparraldeko herritarren artean nabarmen gehiago dira etxean 3.000 eurotik gorako diru sarrera garbiak dituztela diotenak (%25).

1. Grafikoa. Aztertutako biztanleriaren perfil sozio-demografikoa (%)



Iturria: Siadeco, 2017.

2.2. Ezaugarri linguistikoak

Euskararen ezagutza-maila

Orotara, 16 urtetik gorako 4 euskal herritarretatik 1 dela euskalduna kontsidera dezakegu, euskaraz hitz egiteko gai dena (%27); euskaraz irakurtzeko gai da 4tik 1 (%25) eta euskaraz idazteko gai zertxobait gutxiago (%23). Euskaraz ulertzen dutenak 10etik 3 dira (%31).

3. Taula: Euskararen ezagutza-maila (%)

	Ulertu	Hitz egin	Irakurri	Idatzi
Ezer ez	35,7	39,8	46,1	47,2
Hitz batzuk	21,3	22,8	18,7	19,1
Zertxobait	12,1	10,8	10,4	10,6
Nahiko ongi	8,3	5,6	5,3	4,8
Ongi	22,6	21,0	19,5	18,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2017

16-31 urte bitarteko gazteen ia erdiak euskaldunak dira (%44) baina adinean gora egin ahala, gero eta txikiagoa da euskaldunen pisua, 55 urte edo gehiagokoen artean 5etik 1 (%20). Gipuzkoa da lurralderik euskaldunena (%48) eta Bizkaia (%25), Iparraldea (%21), Araba (%18) eta Nafarroako (%12) biztanle euskaldunen ehunekoak baxuagoak dira.

4. Taula: Euskaraz hitz egiteko (ongi + nahikoa ongi) diren herritarrek, generoari, adin-tarteari eta lurraldeari jarraiki (%)

	GENEROA		ADIN-TARTEA			LURRALDEA					
	Emaku-mezkoa	Gizonezkoa	16-31 urte	32-54 urte	55 edo gehiago	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa	Iparraldea	GUZTIRA
Euskalduna	26,7	26,4	43,5	23,4	19,9	17,5	25,4	48,2	11,5	21,4	26,6
Ez euskalduna	73,3	73,6	56,5	76,6	80,1	82,5	74,6	51,8	88,5	78,6	73,4
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2017

Euskaraz hitz egiteko gai izan baina euskaraz irakurtzeko edota idazteko gai ez diren euskaldunak (ez alfabetatuak) orokorrean ez dira asko baina adinean gora egin ahala gero eta gehiago dira; 55 urtetik gorako 4 euskaldunetatik 1ek (%26) ez da euskaraz irakurtzeko gai.

Lehen hizkuntza eta etxeko hizkuntza

Euskara etxean lehen hizkuntza gisa jaso duten herritarrek %18 dira, %15ek euskara soilik eta %3k gaztelania edo frantsesarekin batera. Eta gaur egun etxeko harremanetan nagusiki euskara erabiltzen dutenen ehunekoak ere aurrekoen parean kokatzen dira: %11k nagusiki euskaraz eta %8k gaztelania edo frantsesarekin batera. Lurraldekako datuetan alde handiak daude ordea; Gipuzkoa dago mutur batean (lehen hizkuntza euskara bakarrik, %32) eta Araba beste muturrean (%6). Etxeko harremanetan erabilitako hizkuntzaren lurraldekako datuekin ere gauza bera gertatzen da.

Euskaraz hitz egin eta irakurtzeko erraztasun alderatua

Euskaraz, erdaraz bezainbesteko erraztasunarekin edo handiagoarekin mintzatzeko gai direnak, aztertutako herritar guztien %15 dira eta herritarren %12, elebidunak izan arren, erdal elebidunak dira, hau da, erosoago mintzatzen dira gaztelaniaz.

Irakurtzeko gaitasun alderatuaren datuei erreparatuta berriz, %13 dira euskaraz erdaraz bezain eroso edo erraz irakurtzen dutenak, euskaldun alfabetatuak diren gainerako %12ak, euskaraz irakurtzeko gai izan arren, erdaraz errazago irakurtzen baitute.

Honela, euskarazko liburuen lehen mailako irakurle potentzialak, elebidun orekatuak eta euskaldun elebidunak, %13 dira. Bigarren mailakoak berriz, erdal elebidunak, euskaraz irakurri bai, baina gehiago kostatzen zaienak %12.

Euskaldunak euskaraz bizi?

Euskaraz nahikoa ongi edo ongi hitz egiteko gai direla erantzundakoei, euren bizitza euskaraz zenbaterainokoa den galdetu zaie, 0tik 10era doan eskala batean, non 0 den euskaraz batere ez, eta 10 erabat euskaraz. Eskala horretan lortutako balorazioen batez bestekoa, 6,5 da. Aipagarria gertatzen da eskala horretan 7tik gorako puntuazioa eman dutela euskaldunen erdiak baino gehiagok (%54).

5. Taula: Zure bizitza euskaraz zenbaterainokoa dela esango zenuke 0tik 10erako eskalan, non 0=euskaraz batere ez, eta 10=erabat euskaraz dela? (Euskaraz hitz egin nahikoa ongi edo ongi egiten dutenei soilik; euskaldunei - %26,6)

	%
0-3 artean	12,1
4-6 artean	32,4
7-8 artean	32,3
9-10 artean	22,1
Ed/Ee	1,1
Guztira	100,0
<i>Batez beste</i>	6,54

Iturria: Siadeco, 2017


Lurralde historikoaren eta adinaren arabera, Gipuzkoako euskaldunak dira euskaraz gehien bizi direnak (7,28); jarraian datoz Nafarroa (6,93) eta Iparraldeko (6,83) euskaldunak, eta batez bestekoaren azpitik Bizkaia (5,82) eta Arabakoak (5,07).

Adinari erreparatuta, 55 urtetik gorakoak dira euskaraz gehien bizi direnak, eta 26-34 eta 45-54 artekoak aldiz gutxien.

Jubilatu eta erretiratuen artean da erabilera maila altuena (7,03) eta langabetu (5,99) eta ikasleen (6,33) artean aldiz, baxuena.

Azkenik, emakumezkoen artean altuagoa da batez bestekoa (6,80) gizonezkoen artean baino (6,28).

2. Grafikoa. Aztertutako biztanleriaren ezaugarri linguistikoak (%)



Iturria: Siadeco, 2017.

2.3. Hedabideen kontsumoa

Telebista

Aztertutako biztanleen artean, Euskal Herriko 16 urtetik gorakoen artean alegia, ETB2 da telebista katerik kontsumituena, herritarren %31k gehien ikusitako bi telebista kateen artean kokatu du ETB2. Espainiako telebista kanalak datoz ondoren: Antena3 %19k, TVE1 eta La Sexta %16k, Tele5 %15ek eta Cuatro %10k. ETB1 herritarren %15ek dute gehien kontsumitutako lehen bi kateen artean. ETB1 kateari dagozkion datuak hobeak dira Gipuzkoan eta adinari jarraiki, gazteenen eta 65 urtetik gorakoen artean.

Egunkariak

Paperean eta webean gehien kontsumitzen dituen bi egunkariak zeintzuk diren galdetuta, El Correo da alde handiz aipatuena, herritarren %28k kontsumitzen baitute. Alde handiz bigarrenarekiko, Diario Vasco (%15) eta hirugarrenarekiko, Diario Navarra (%11). Gehien irakurritako bi egunkarien artean Berria egunkaria aipatu dutenak %5 izan dira.

Irakurketa errazte aldera, egunkariak bildu egin ditugu, ondorengo taula sortuz. Honen arabera:

- Vocento eta Grupo Información-eko egunkariak dira, alde handiz kontsumituenak; izan ere, herritarren erdiak baino gehiagok kontsumitzen ditu El Correo, Diario Vasco, edota Diario de Navarra (%52k).
- Grupo Noticias-eko egunkariak berriz, herritarren %19k (Noticias de Navarra, Noticias de Alava, Noticias de Gipuzkoa, Deia), eta Espainia edo Frantziako prentsa %14k (El País, El Mundo).
- Herritarren %6k kontsumitzen dute euskarazko prentsa; horien artean Berria da irakurriena (ia %5), baina aipatu dira baita ere Argia, Herria, eta hainbat tokiko komunikabide (Irutxuloko Hitza, Ataria, Goiena, Anboto...)
- Herritarren %23k ez dute egunkaririk irakurtzen.


6. Taula: Zeintzuk dira zuk gehien kontsumitzen dituzun bi egunkariak (webean eta paperean) (%)

	1. egunkaria %	2. egunkaria %	Bi kontsumituenak %
Euskarazko prentsa	3,8	2,4	5,8
Grupo Noticias	10,2	8,6	18,7
Vocento+Grupo información	45,2	7,4	52,1
Kirol prentsa	1,7	3,0	4,4
Espainia/Frantziako prentsa	6,0	7,5	12,9
Gara	3,4	2,5	5,9
Sud Ouest	3,8	0,6	4,2
Besterik	2,3	3,0	4,9
Bat bera ere ez	22,8	52,4	22,8
Ed/Ee	0,8	12,6	0,8
Guztira	100,0	100,0	

Iturria: Siadeco, 2017

Euskarazko prentsa irakurleak gehiago dira Gipuzkoarren artean (%12), ikasleen artean (%11), eta 16-25 urte arteko gazteen artean (%10); kurioski, egunkariak irakurtzeko ohitura gutxien duten kolektibotan (16-25 urtekoen artean %44 dira egunkaririk irakurtzen ez dutenak, eta ikasleen artean %37).

3. Grafikoa. Hedabideen kontsumoa (%) (gehien kontsumitutako bi hedabideen ehunekoen baturak)



Iturria: Siadeco, 2017.

2.4. Sare sozialen erabilera

Facebook da sare sozialik bisitatu edota erabiliena, 16 urtetik gorako herritarren herenak baino gehiagok aipatu dute (%37). Bigarren maila batean kokatzen dira berriz, erabiltzaile kopuru bertsuarekin (%12-%13) Twitter eta Instagram. Erabilera baxuagoa dutenak dira, %2 inguru, Google+ edo Snapchat.

Herritarren erdiek baino gehiagok (%55ek) ez dute sare sozialik erabiltzen.

7. Taula: Sare sozialen bateko erabiltzaile al zara? Zeintzuk dira zuk gehien kontsumitutako bi sare sozialak?

	1. sare soziala %	2. sare soziala %	Bi aipatuena %
Facebook	33,2	3,4	36,6
Twitter	3,2	9,5	12,7
Instagram	5,6	6,6	12,2
Google+	1,0	1,0	2,0
Snapchat	0,6	1,0	1,7
Besterik	0,5	0,6	1,0
Bat ere ez	55,1	68,2	55,1
Ed/Ee	0,9	9,6	0,9
Guztira	100,0	100,0	

Iturria: Siadeco, 2017


Sare sozialen erabilera adinari oso lotua dago, eta 34 urtez behekoek erabiltzen dute nagusiki; honela, 16-25 urtekoen artean, %11 besterik ez dira sare sozialik erabiltzen ez dutenak eta 65 urtetik gorakoen artean, berriz, %89. Facebook 26-34 urte artekoen artean erabiltzen da gehien (%74k); Twitter eta Instagram berriz, batez ere 25 urtetik beherakoek.

8. Taula: Sare sozialen erabiltzaileak, sexua eta adinari jarraiki (gehien erabilitako bi ehunekoen batura) (% horizontala)

		Facebook	Twitter	Instagram	Google+	Snapchat	Besterik	Bat ere ez	Ed/Ee
		%	%	%	%	%	%	%	%
Generoa	Emakumezkoa	37,1	11,6	14,9	0,9	1,2	0,6	54,8	0,9
	Gizonezkoa	36,2	13,8	9,4	3,1	2,1	1,4	55,4	0,9
Adina	16-25 urte	57,3	34,4	53,1	2,7	9,2	0,5	11,1	0,2
	26-34 urte	73,5	28,4	22,7	0,2	2,5	2,1	18,8	1,3
	35-44 urte	49,0	12,3	8,9	5,4	0,3	1,6	42,2	0,5
	45-54 urte	33,3	7,5	3,1	2,5	0,1	1,1	63,5	0,5
	55-64 urte	23,5	5,2	1,0	1,0	0,0	0,5	72,6	1,5
	65 edo gehiago	8,8	1,3	0,0	0,6	0,0	0,6	89,0	1,2
GUZTIRA		36,6	12,7	12,2	2,0	1,7	1,0	55,1	0,9

Iturria: Siadeco, 2017

4. Grafikoa. Sare sozialen erabilera adinari jarraiki (%) (gehien erabilitako bi ehunekoen baturak)



2.5. Euskal kulturarekiko gertutasun-maila

Kultur produktuak sustatzeari zenbaterainoko garrantzia ematen dioten galdetuta, eta erantzuna 0tik 10erako eskala batean kokatzeko eskatuta (non 0=batere garrantzirik ez eta 10=oso garrantzitsua den), herritarrek garrantzia altua eman diote oro har kultur produktuak sustatzeari (liburuak, musika...), 8,43 puntu emanez.

Euskal kulturari loturiko produktuak sustatzeari eta euskaraz argitaratutako produktuak sustatzeari emandako garrantzia, zertxobait baxuagoa izan arren, altua da, 8aren inguruan kokatzen baita.

Kultur produktuak sustatzeari, orokorrean, euskaldunek emandako garrantzia maila apur bat altuagoa da; baina alde txiki hori handituz doa euskal kulturari loturiko produktuak sustatzeari emandako garrantziaz edo euskaraz argitaratutakoak sustatzeari eman beharreko garrantziaz galdetutakoan. Honela, euskaldunek garrantzia handixeagoa ematen diote euskal kulturari loturiko produktuak sustatzeari, eta euskaraz argitaratutakoak sustatzeari, orokorrean kultur produktuak sustatzeari baino.

Euskaraz hitz egiteko gai ez direnak, aldiz, batez beste, garrantzia gehiago ematen diote kultur produktuak sustatzeari, euskal kulturarekin loturikoak edo euskaraz argitaratutakoak sustatzeari baino.

Euskaldunen artean ere, euskal kultur produktuak eta euskarazkoak sustatzeari emandako garrantzia altuagoa da euskaraz eroso eta erraz hitz egiten dutenen artean, erdaraz errazago/erosoago egiten dutenen artean baino.

9. Taula: Kultur produktu mota desberdinak sustatzeari emandako garrantzia maila, euskaraz hitz egiteko gaitasunari jarraiki (0tik 10erako eskalan, non 0=batere garrantzitsua ez eta 10=oso garrantzitsua)
(Batez besteko balioak)

	Kultur produktuak sustatzea	Euskal kulturari loturiko produktuak sustatzea	Euskaraz argitaratutakoak sustatzea
EUSKARAZ HITZ EGITEKO GAITASUNA			
Ezer ez	8,44	7,57	7,25
Hitz batzuk	8,41	8,06	7,77
Zertxobait	8,27	8,40	8,31
Ez euskalduna	8,40	7,85	7,58
Nahiko ongi	8,50	8,52	8,48
Ongi	8,51	8,75	8,76
Euskalduna	8,51	8,70	8,70
EUSKARAZ HITZ EGITEKO ERRAZTASUNA			
Euskaraz errazago edo berdin hitz egiteko gai	8,63	8,92	8,95
Erdaraz errazago hitz egin (euskalduna)	8,36	8,41	8,37
Euskalduna	8,51	8,70	8,70
Ez euskalduna	8,40	7,85	7,58
Guztira	8,43	8,08	7,88

Iturria: Siadeco, 2017

2.6. Etxean bildutako liburu eta musika euskarriak

Herritarrak aztergaiarekin duen harremanaren lehen adierazle gisa, bizi den etxean dituen liburu eta musika euskarri kopuruaz galdetu zaio, liburuen kasuan paperezkoak eta digitalak bereiziz.

Paperezko liburuak ia etxe guztietan badiren arren, %2 dira bat bera ere ez dutela diotenak; multzorik handienak, halere (%39) 50-200 liburu artean ditu eta beste %29k, 200 liburu baino gehiago.

Hamar etxeetatik lautan badute liburu digitala, eta aldiz 10etik 6tan, ez.

Musika CD, DVD edo biniloak, musika euskarri “fisikoak” deitu geniezaiekeenak 10 etxetik 9tan dituzte; multzorik handienak -%32k- 50-200 artean ditu, eta %25ek, 25-50 artean.

Musika artxibo digitalak, 10 etxetik 6tan dituzte, eta multzorik handienak -%26k- 200 artxibo baino gehiago.

10. Taula: Etxean bildutako liburu eta musika euskarriak (%)

	Liburuak		Musika CD, DVD edo biniloak	Musika artxibo digitalak
	Paperezkoak	Digitalak		
	%	%	%	%
Batere ez	2,1	59,5	11,0	40,7
25 baino gutxiago	9,7	19,8	18,3	12,8
25-50 artean	19,7	7,4	25,0	7,6
50-200 artean	39,3	5,8	31,6	10,7
200 baino gehiago	28,6	5,8	13,4	25,6
Ed/Ee	0,6	1,7	0,8	2,7
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2017

Etxean duten liburu kopuruak lotura du adinarekin; hartara, gazteen artean, gehiago dira etxean paperezko libururik ez duten edo 25 liburu baino gutxiago dituztenak (%26, 26-34 urte bitartekoen artean); aldiz, liburu digitalik ez dutenen portzentajea nabarmen altuagoa da 65 urtetik gorakoen artean (%80).

Bai paperezko, bai liburu digitalen kasuan, etxean liburu gehien dituztenak 45-64 urte artekoak dira.

Iparraldean, liburu digitalaren erabilera nabarmen baxuagoa da (%79k ez dute bizi diren etxean liburu digitalik).

Musika artxibo digitalen kasuan ere lotura zuzena dago adina eta etxean dituzten artxibo kopuruan; adinak gora egin ahala gehiago baitira inongo artxibo digitalik ez dutenak (%12 16-25 urte bitartekoen artean, eta %80, 65 urtetik gorakoen artean), eta alderantziz, zenbat eta gazteagoa orduan eta gehiago dira 200 artxibo baino gehiago dituztenak (%54, 16-25 urte bitartekoen artean, eta %4, 65 urtetik gorakoen artean).

Liburu digitalarekin gertatu bezala, musika artxibo digitalik ez dutenen portzentajea altuagoa da Iparraldean (%50) Hego Euskal Herriko lurraldeetan baino (non %37-%40 artean kokatzen den, lurraldearen arabera).

Irakurketa- ohiturak

3

Irakurketa-ohiturak

3.1. Liburu irakurleak

Liburu irakurletzat hartutako herritarrak, azken 6 hilabeteetan gutxienez liburu bat irakurri dutenak dira, euskarria edozein izanda (paperean edo modu digitalean) eta motiboa ere edozein izanda (aisialdia, ikasketak, lan kontuak, eta abar). Irakurle kontsideratutakoen artean azpi sailkapen bat ere egin dugu, ohiko irakurle eta noizbehinkako irakurleen arteko bereizketa eginez:

- Ohiko irakurleak: azken liburua azken hilabetean irakurrik dutenak.
- Noizbehinkako irakurleak: azken liburua duela hilabete 1 eta 6 hilabete artean irakurri dutenak.
- Irakurleak: ohiko irakurleak + noizbehinkako irakurleak.
- Ez irakurleak: irakurtzekotan, azken liburua orain 6 hilabete baino atzerago irakurria dutenak.

Aurreko sailkapenaren arabera, Euskal Herriko 16 urtetik gorako 10 biztanletatik 7 liburu irakurleak dira, 6 ohiko irakurleak (%58) eta 1 noiz behinkakoa (%12).

Emakumezkoak irakurleago dira orokorrean (%75 dira irakurle), gizonetzkoak baino (%64) eta lurraldeka, Ipar Euskal Herrian altuagoa da irakurzaletasuna, 10etik ia 7 (%68) baitira ohiko irakurle. Hein handi batean ikasketekin lotura duen irakurketa-motarengatik, langileek baina gehiago irakurtzen dute ikasleek (%77); gutxien, berriz, etxeko lanak egiten dituztenek (%45). Irakurketa-maila eta ikasketa-mailaren arteko lotura ere zuzena da, zenbat eta maila altuagoko ikasketak eginak izan, orduan eta altuagoa da irakurtzeko ohitura.

3.2. Euskarazko eta erdarazko liburuen irakurleak

Erdarazko liburuen irakurketa-mailaren parean euskarazko liburuetan datuak nabarmen baxuagoak dira; aztertutako 10 biztanletik 1 (%11) izango litzateke euskal liburuen irakurle, %6 ohikoak eta %5 noizbehinkakoak. 4tik 3k euskara ez jakiteak eragiten du jaitsiera hori hein handi batean, baina bestela ere, elebidunak diren herritarren artean ere baxuagoa da euskarazko liburuen irakurketa maila. Biztanleriaren %56 erdarazko liburuen ohiko irakurlea da; aldiz biztanleria euskaldunaren %23 da euskarazko liburuen ohiko irakurle. Maiztasun handiagorekin edo txikiagoarekin, 10 euskaldunetik 4k (%42) irakurri ohi dute euskarazko libururen bat.

11. Taula. Euskarazko eta erdarazko liburuen irakurleak (%)

	Irakurleak %	Euskarazko liburuen irakurleak		Erdarazko liburuen irakurleak %
		(Euskaldunak) %	(Guztira) %	
Ohiko irakurlea	57,5	22,9	6,1	55,6
Noizbehinkako irakurlea	11,9	19,4	5,2	12,5
Ez irakurlea	30,5	57,7	15,3	31,9
Ez euskalduna	-	-	73,4	-
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2017.

Euskarazko liburuen kontsumo-mailarik altuena 16-25 urte arteko gazteei dagokie, baina ezin ahaztu ikasketei lotutako irakurketa dela hein handi batean. Bestela ere euskara dakitenen pisua altuagoa da adin tarte horretan. Biztanleria osoarekiko, euskarazko liburuen irakurle direnek Gipuzkoan dute pisurik gehien eta biztanleria euskalduna bakarrik kontuan hartuta, Iparraldeko euskaldunek beste lurraldeetakoek baino euskarazko liburu gehiago irakurtzen dute. Azkenik, hizkuntza gaitasun alderatuak ere eragiten du euskarazko liburuen irakurketan eta euskalduna izanda ere irakurtzerakoan euskaraz gaztelaniaz bezainbesteko erraztasuna dutenak euskarazko liburuak gehiago irakurtzen dituzte.

3.3. Irakurtzeko motibazioa

16 urtez gorako Euskal Herriko biztanleria bere osotasunean hartuta, aisialdi momentuko liburuak irakurleak %65 dira; aldiz lanbidea, edo hori baino gehiago ikasketekin lotura duten motiboengatik irakurtzen dutenak, 5etik 1 (%21).

Liburuak argitaratutako hizkuntzaren arabera, aisialdirako irakurritakoetan baino proportzionalki pisu handiagoa dute euskarazkoek ikasketei lotutakoetan.

3.4. Liburuaren formatua

Erdaraz

Paper formatuan eta erdaraz urtean gutxienez liburu bat irakurtzen dutenak 10etik ia 8 dira (%79), aisialdiko irakurketarako %60 eta lana edo ikasketengatik %19. Formatu digitalean berriz ia 4tik 1ek (%24), aisialdirako %20 eta lana edo ikasketengatik %4.

Aisialdiari lotuta urtean erdaraz paper formatuan 10 liburu baino gehiago irakurtzen dituzten biztanleak 10etik 2 dira (%19); 10 liburu digital baino gehiago irakurtzen dituztenak %6.

Aisialdiko irakurketako erdarazko liburuetan, 3tik 1ekoa da gutxi gorabehera ohiko liburuaren eta liburu digitalaren arteko erlazioa, hau da, paperean irakurritakoak, formatu digitalean irakurritakoen hirukoitza dira. Aldagai sozio-demografikoen arabera, liburu digitalen erabilera handieneko biztanleak 45-54 urte artekoak (%27) eta goi mailako ikasketak dituztenak dira (%27).

Euskaraz

Aisialdirako paper formatuan euskaraz urtean gutxienez liburu bat irakurtzen duten euskaldunak, hirutik bat dira (%33); formatu digitalean berriz %5 bakarrik.

Aisialdiko irakurketako euskarazko liburuetan, ia 7tik 1ekoa da gutxi gorabehera paper formatuko liburuaren eta liburu digitalaren arteko erlazioa; modu digitalean irakurritako liburu bakoitzeko, 7 liburu irakurtzen dira paperean.

3.5. Irakurketa generoa

Irakurzalearentzat ez da maiz erraza izaten gustukoen duen generoa hitz bakar batean laburtzea, genero eta estilo desberdinak izaten baititu gustuko, momentu eta egoeraren arabera hautatzeko, eta halaxe erantzun dute herritarren %16k inguruk.

Nobela da gehien aipatutako generoa; maiz izaera desberdineko nobelak gustukoak dituztela adierazten dute, gehiago zehaztu gabe (%13 inguruk); baina zein eratako nobela duen gustukoen aipatu dutenen artean, nobela historikoa (%22) eta polizia nobela, nobela beltza edo zientzia fikzioa (%14) dira errepikatuenak.

Nabarmen gutxiago aipatu bada ere, nobela erromantikoa agertzen da jarraian (%6), eta literatura klasikoa ondoren (%3).

Generorik gustukoena literatura ez den beste bat aipatu dutenak nabarmen gutxiago dira, baina horien artean, aisia arlokoak (sukaldaritza, kirolak, abentura...%2) eta ekonomia/zuzenbidea eta giza eta gizarte zientziatakoak (%2) izan dira aipatuak, eta zientzia natural eta zehatzetakoak ondoren (%1)

Emakumezkoen artean, dezente gehiago dira nobela erromantikoa aipatzen dutenak, eta baita, diferentzia txikiagoarekin bada ere, nobela beltza, polizia nobela edo zientzia fikzioa erantzuten dutenak; gizonezkoen artean berriz, arrakasta handiagoa du nobela historikoak (%25), eta maila apalagoan bada ere, baita giza eta gizarte zientziekin edota ekonomia eta zuzenbidearekin lotutako testuak (%3).

Adinean gora egin ahala, gehiago dira nobela historikoa hautatzen dutenak, 65 urtetik gorakoen artean %31 izateraino; kontrara, nobela beltza, polizia nobela eta zientzia fikzioa gustukoagoa dute gazteek (%27 25 urtez beherakoen artean), eta baita nobela erromantikoa ere.

12. Taula: Gustukoen dituzten liburuen generoa (%)

Irakurketa generoa	%
Haur eta gazte literatura	0,2
Literatura klasikoa	3,0
Nobela historikoa	22,9
Nobela erromantikoa	6,0
Nobela beltza-polizia nobela eta zientzia fikzioa	18,7
Nobela grafikoa eta komikiak	0,8
Nobelak (orokorrean, estilo desberdinetakoak..)	14,1
Euskal gaia	0,6
Testu liburuak	0,5
Hizkuntza liburuak	0,3
Aisia	2,2
Ekonomia/zuzenbidea eta giza eta gizarte zientziak	1,7
Zientzia natural eta zehatzak	1,1
Bestelakoak (biografiak, kronikak, teknikoak...)	16,3
Denetarik	0,9
Ed/Ee	4,2
Ez dagokio/Ez du irakurtzen	6,3
Guztira	100,0

Iturria: Siadeco, 2017.

3.6. Euskarazko irakurketan eragiten duen alderdia

Euskaldunen artean, euskaraz irakurtzeko ohitura edo erraztasun faltak eragiten du nagusiki euskarazko liburuen irakurketa maila; 10 euskaldunetik 4k hori dute arrazoi nagusia. 10etik 1ek aldiz, euskaraz gustuko libururik ez topatzea. %4 dira euskaraz gehiago ez irakurtzearen arrazoi gisa euskarazko eskaintza ez ezagutzea aipatzen dutenak.

Adin-tartearen arabera erantzunak nabarmen desberdinak dira; euskaraz irakurtzeko ohitura duten euskaldunen portzentajeak gora egiten du adinean behera egin ahala; eta aldiz, euskaraz gehiago ez irakurtzeko arrazoi gisa ohitura edota erraztasun falta aipatzen dutenen portzentajeak, gora egiten du adinarekin, %26tik (16-25 urte artekoen artean) %62ra iritsiz (65 urte edo gehiagokoan artean).

Arrazoi nagusi gisa gustuko libururik ez topatzea edo euskarazko eskaintza ez ezagutzea aipatzen dutenak gehiago dira gazteen artean (%12 eta %7 hurrenez hurren).

Emakumezkoen artean zertxobait gehiago dira euskaraz irakurtzeko ohitura/erraztasun falta aipatzen dutenak (%45).

13. Taula: Zer da zure euskarazko liburuen irakurketa mailan eragin gehien duen alderdia, generoari eta adinari jarraiki? (euskaldunei soilik - %26,6)(% hor)


		Euskaraz irakurtzeko ohitura/Erraztasun falta	Gustuko libururik euskaraz ez	Eskaintza ez ezagutzea	Euskarazko liburuak garestiak izatea	Euskara eta euskal kulturarekiko interesik ez	Euskaraz irakurtzeko ohitura dut	Besterik*	Ed/Ee	Guztira
Generoa	Emakumezkoa	45,1	10,0	3,8	0,3	0,6	28,0	10,6	1,5	100,0
	Gizonezkoa	39,8	9,8	3,7	0,3	0,9	31,2	11,9	2,4	100,0
Adina	16-25 urte	26,3	12,3	7,0	0,6	0,6	39,2	11,1	2,9	100,0
	26-34 urte	34,8	10,1	3,4	-	2,2	36,0	12,4	1,1	100,0
	35-44 urte	38,8	14,3	4,1	-	1,0	31,6	8,2	2,0	100,0
	45-54 urte	52,5	10,7	2,5	0,8	-	23,8	8,2	1,6	100,0
	55-64 urte	52,5	6,3	-	-	-	27,5	12,5	1,3	100,0
	65 edo gehiago	61,5	2,9	1,0	-	-	16,3	16,3	1,9	100,0
Guztira		42,5	9,9	3,8	0,3	0,8	29,6	11,3	2,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2017

*Besterik: denbora falta, alferkeria, oro har irakurtzeko ohiturarik ez, ez da euskaraz irakurtzen saiatu...


3.7. Irakurketa-ohiturei buruzko adierazleen grafikoak

5. Grafikoa. Irakurketa-ohituren adierazle orokorrak (%)




Iturria: Siadeco, 2017.

6. Grafikoa. Ohiko irakurleen ezaugarri sozio-demografikoak (%)




Iturria: Siadeco, 2017.

7. Grafikoa. Euskarazko liburuen ohiko irakurleen ezaugarri sozio-demografikoak (%)



8. Grafikoa. Aisialdian paper formatuan irakurritako erdarazko eta euskarazko liburuak (%)




9. Grafikoa. Aisialdian formatu digitalean irakurritako erdarazko eta euskarazko liburuak (%)



Iturria: Siadeco, 2017.

● 1-10 liburu artean
● 10 liburu baino gehiago


10. Grafikoa. Ikasketa edota lan motiboengatik paper formatuan irakurritako erdarazko eta euskarazko liburuak (%)



Iturria: Siadeco, 2017.

● ● ● 1-10 liburu artean
● ● ● 10 liburu baino gehiago

11. Grafikoa. Ikasketa edo lan motiboengatik formatu digitalean irakurritako erdarazko eta euskarazko liburuak (%)



Iturria: Siadeco, 2017.

● 1-10 liburu artean
● 10 liburu baino gehiago

3.8. Irakurketa-ohituren joera aldaketak

Irakurketa-maila

Orokorrean irakurtzeko ohituratan azken bost urteetan izandako bilakaeraz galdetu diegu elkarrizketatuei, irakurketari eskainitako denbora gero eta gehiago ala gero eta gutxiago izan den jakiteko. Inkestatuen multzo zabal batek (%41) adierazi du ez duela ez gehiago ez gutxiago irakurtzen, berdin baizik. Baina bilakaera adierazitakoen artean, gehiago izan dira azken bost urteetan gero eta gutxiago irakurtzen dutela erantzundakoak (%33), gero eta gehiago erantzun dutenak baino (%24). Aurrera begira jarrita ordea, hemendik bost urteetara orain baino gehiago irakurtzea espero dutenak (%24) gehiago dira, orain baino gutxiago irakurriko dutela adierazitakoak baino (%11).

Azken 5 urteetako irakurketa mailaren bilakaeran balantze positiboa ematen duten bakarrak 16-25 urte artekoak dira (%3 dira gehiago irakurri dutenak, gutxiago egin dutenak baino), eta datozen 5 urteetara begira ere ere, gazteena da bilakaerarik positiboena aurreikusten duen multzoa (%33 gehiago dira gehiago irakurtzea aurreikusten dutenak, gutxiago egitea aurreikusten dutenak baino).

Iparraldean, azken 5 urteetako bilakaera negatiboa izan arren, datu orokorretan baino nabarmen apalagoa da (%1 gehiago dira gutxiago irakurri dutenak, gehiago irakurritakoak baino), eta datozen 5 urteetarako aurreikuspenak aldiz, positiboagoak (%20 gehiago dira, gehiago irakurtzea aurreikusten dutenak, gutxiago egitea aurreikusten dutenak baino).

14. Taula: Irakurketa mailaren azken 5 urteetako bilakaera eta datozen 5 urteetarako aurreikuspena (% guztiekiko)

		Datozen 5 urteak				Guztira
		Gero eta gehiago	Gero eta gutxiago	Berdin	Ed/Ee	
Azken 5 urteak	Gero eta gehiago	14,1	0,4	8,4	0,9	23,9
	Gero eta gutxiago	6,6	10,0	15,2	1,6	33,4
	Berdin	3,0	0,7	36,0	0,8	40,5
	Ed/Ee	-	-	-	2,2	2,2
	Guztira	23,8	11,1	59,6	5,4	100,0

Iturria: Siadeco, 2017.

Liburu digitalen erabilera

Igarotako azken 5 urteetako bilakaeran eta datozen bost urteei begira ere, 4tik 3 inguruk erantzun dute liburu digitalaren erabileran ez dutela aldaketarik izan eta aurrerantzean ere ez dutela aldaketarik aurreikusten. Aldiz, %16 eta %18aren bueltan dabilta, bai azken 5 urteetan, bai datozenetan ere, liburu digitala gero eta gehiago erabili dutenak edota erabiliko dutenak; alderantzizko bilakaera izan dutenak baino gehiago (%5 eta %3aren bueltan). Diferentzia, 12 eta 13 punturen bueltakoa.

Azken 5 urteetan liburu digitala gehiago erabili dutenak, gutxiago erabili dutenak baino gehiago izan dira adin-tarte eta lurralde guztietan (alde handiagoz 54 urtetik beherako herritarren artean); eta aurrera begira ere, gero eta gehiago erabiltzeko joera orokorra izango bada ere, nabarmenagoa izango da herritar gazteen artean (non gero eta gehiago erabiliko dutela dioten %28k, eta gutxiago aldiz, %3k)

15. Taula: Liburu digitalaren azken 5 urteetako erabileraren bilakaera eta datozen 5 urteetarako aurreikuspena (% guztiekiko)

		Datozen 5 urteak				Guztira
		Gero eta gehiago	Gero eta gutxiago	Berdin	Ed/Ee	
Azken 5 urteak	Gero eta gehiago	11,7	0,7	5,3	0,2	17,9
	Gero eta gutxiago	0,8	2,4	2,1	0,2	5,4
	Berdin	3,3	0,2	68,8	1,2	73,5
	Ed/Ee	-	-	-	3,2	3,2
	Guztira	15,8	3,2	76,2	4,8	100,0

Iturria: Siadeco, 2017.

Doako liburuen erabilera (paperean nahiz euskarri digitalean)

10etik 7 edo 8ren kasuan, ez goranzko ez beheranzko joerarik, ez pasatako bost urteetan, ez hurrengo bostei begira ere. Hala ere, doako liburuetara gero eta gehiago jotzen da eta gero eta gehiago eta gero eta gutxiago erantzun dutenen ehunekoan arteko aldea, 8 puntukoa da.

16-25 urtekoen artean, aldiz, 23 puntukoa da azken 5 urteetan gero eta doako liburu gehiago erabili dituzten eta gero eta gutxiago egin dutenen arteko aldea; eta 24 puntukoa, datozen 5 urteetan halaxe egitea aurreikusten dutenena.

16. Taula: Doan eskuratutako liburuen azken 5 urteetako bilakaera eta datozen 5 urteetako aurreikuspena (% guztiekiko)

		Datozen 5 urteak				Guztira
		Gero eta gehiago	Gero eta gutxiago	Berdin	Ed/Ee	
Azken 5 urteak	Gero eta gehiago	11,6	0,4	5,7	0,3	18,0
	Gero eta gutxiago	1,0	5,0	3,3	0,4	9,6
	Berdin	1,1	0,3	67,8	0,5	69,7
	Ed/Ee	-	-	-	2,7	2,7
	Guztira	13,7	5,6	76,8	3,8	100,0

Iturria: Siadeco, 2017.

Euskarazko liburuen irakurketa

10 euskaldunetatik 6 edo 7k erantzun dute euskarazko liburuen irakurketan ez dutela aldaketarik izan eta aurrerantzean ere maila bertsuan irakurriko dituztela. Hala ere kasu honetan, igarotako azken 5 urteetako bilakaera negatiboa izan da, hau da, gero eta gutxiago irakurri dutenak, kontrako bidea egindakoak baino zertxobait gehiago dira (puntu bateko aldea), aldiz, aurrera begirako aurreikuspenak positiboak dira eta gero eta gehiago irakurtzeko esperantza adierazi dutenak gehiago izan dira (ia 14 puntuko aldea).


Azken 5 urteetan, euskarazko liburuek, 45-54 urte arteko adin-multzoan irabazi dituzte soilik irakurleak (%3 dira gehiago irakurri dutenak, gutxiago irakurritakoak baino); baina datozen 5 urteetan, aldiz, adin-multzo guztietan irabazteko esperantza adierazi da, gehiago 54 urtez behekoen artean (%16-%18 artean), hortik gorakoan artean baino.

17. Taula: Euskarazko liburuen irakurketaren azken 5 urteetako bilakaera eta datozen 5 urteetarako aurreikuspena (euskaldunak soilik - % guztiekiko)

		Datozen 5 urteak				Guztira
		Gero eta gehiago	Gero eta gutxiago	Berdin	Ed/Ee	
Azken 5 urteak	Gero eta gehiago	11,7	0,2	5,4	0,2	17,4
	Gero eta gutxiago	3,5	5,5	9,6	0,3	18,9
	Berdin	4,4	0,5	57,3	0,6	62,7
	Ed/Ee	0,2	-	-	0,9	1,1
	Guztira	19,7	6,1	72,3	2,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2017.

12. Grafikoa. Irakurketa-ohituren azken 5 urteetako eta datozen 5 urteetako bilakaeraren joerak ("Gero eta gehiago" eta "Gero eta gutxiago" erantzun dutenen arteko diferentzia portzentualak) (%)



Iturria: Siadeco, 2017.

4

Liburuen erosceta

Liburuen
erosketa

4.1. Liburu erosleak

Paper formatuko liburuenak

Euskal Herriko 16 urtez gorako hiru biztanletik bik (%66), gutxienez liburu bat erosi dute azken urtean. Liburu horiek norberak irakurtzeko nahiz beste norbaiti oparitzeko erositakoak izan daitezke. Liburuen kopuruari dagokionean, 10 biztanletik ia 4k (%38) bost liburu baino gutxiago erosi dituzte, eta 10etik 3k (%28), 5 liburu baino gehiago.

Liburu digitalenak

Liburu digitalak erosten dituzten irakurleak askoz gutxiago badira ere, elkarriketatutako 10 lagunetik 1ek (%11), azken urtean gutxienez liburu digital bat ordainduta eskuratu du.

18. Taula: Azken urtean erositako/ordaindutako liburuak, paperean eta formatu digitalean (%)

	Paperean	Formatu digitalean
	%	%
Bat edo gehiago	66,2	10,7
1-2 artean	16,1	3,4
3-5 artean	21,7	2,3
6-10 artean	13,5	2,1
10 baino gehiago	14,8	3,0
Batere ez	32,5	86,3
Ed/Ee	1,3	2,9
Guztira	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2017

4.2. Mailegu bidez eskuratutako liburuak

Paper formatuan

Lau biztanletatik 1 pasatxo (%27) dira liburutegitako erabiltzaile izan eta azken urtean libururen bat maileguan eskuratu dutenak. Maileguan eskuratutako liburuak, erositakoen erdiak baino gutxiago dira.

Liburu digitalak

%4aren azpitik kokatzen dira maileguan eskuratutako liburu digitalen irakurleak.

19. Taula: Azken urtean mailegu bidez eskuratutako liburuak, paperean eta formatu digitalean (%)

	Paperean	Formatu digitalean
	%	%
Bat edo gehiago	26,9	3,5
1-2 artean	7,8	0,9
3-5 artean	7,4	0,8
6-10 artean	4,7	0,6
10 baino gehiago	7,0	1,1
Batere ez	71,3	93,6
Ed/Ee	1,8	3,0
Guztira	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2017

4.3. Doan eskuratutako liburuak

Paper formatuan

Opari modura jaso duelako, edo opari izan gabe, beste norbaitek utzi diolako, herritarren erdiak baino gehiagoren (%51) eskuetara gutxienez liburu bat iritsi da urtebeteko epean. Proportzioak altuagoak dira gainera ohiko irakurleen artean (%68 inguru) eta Iparraldean bizi direnen artean (%62).

Liburu digitalak

Internetetik deskargatuta edo bestela, 10 elkarrizketatutatik 1ek (%9) erantzun du formatu digitaleko liburuak lortu dituela azken urtean; adinez, 45 eta 54 urtekoen artean da portzentaje hori altuena (%14).


20. Taula: Azken urtean doan (opari gisa, utzita, internetetik deskargatuta...) eskuratutako liburuak, paperean eta formatu digitalean (%)

	Paperean %	Formatu digitalean %
Bat edo gehiago	50,8	8,9
1-2 artean	27,3	2,3
3-5 artean	16,8	2,1
6-10 artean	4,1	0,8
10 baino gehiago	2,6	3,6
Batere ez	46,8	87,9
Ed/Ee	2,4	3,2
Guztira	100,0	100,0


Iturria: Siadeco, 2017

4.4. Liburuen erosketa-ohituretako adierazleen grafikoak


13. Grafikoa. Liburuen erosketa-ohituren adierazle orokorrak (%)



14. Grafikoa. Liburuak paperean erosi egiten dituzten edo doan (maileguan edo norbaitek utzita) eskuratzen dituzten biztanleen ezaugarriak (%) (1)




14. Grafikoa. Liburuak paperean erosi egiten dituzten edo doan (maileguan edo norbaitek utzita) eskuratzen dituzten biztanleen ezaugarriak (%) (2)




Iturria: Siadeco, 2017.

15. Grafikoa. Liburu digitalak erosi egiten dituzten eta doan eskuratzen dituzten biztanleen ezaugarriak (%) (1)



15. Grafikoa. Liburu digitalak erosi egiten dituzten eta doan eskuratzen dituzten biztanleen ezaugarriak (%) (2)



Iturria: Siadeco, 2017.

4.5. Liburuak erosteko tokirik ohikoenak

Paper formatuko ohiko liburuak erostera nora jo ohi da? Hurbilen dauden liburu dendetara, liburu denda handietara, azalera handietara? Herri bertako edo hurbilen dagoen herri bateko liburu-denda txikiak (%47), liburu denda handiak (%36) eta merkataritza gunek handiak (%20) dira hiru establezimendu-motarik ohikoenak. Aurreko ehuneko horiek, bi portzentajeren baturak dira, lehen toki ohikoena eta bigarren toki ohikoena zein den galdetu baitzaio elkarrizketatuari. Paper formatuko liburuak erosteko laugarren espazio ohikoena (%11) internet da. Liburuak erosteko ohitura liburu azoketara mugatzen dutenen ehunekoa, %7 da, eta azkenik, erantzuleen beste horrenbesteko multzo batek (%7), ez du establezimendu-mota zehaztu baina liburu-denda jakinen izenak eman ditu (Elkar bera, Circulo de Lectores, Casa del Libro, eta abar). Gainerako gehienek (%17ak) ez dute libururik erosten.

21. Taula. Paper formatuan erositako liburuak erosten diren bi toki edo modu ohikoenak, garrantzitsuenetik hasita (%)

	Lehen ohikoena %	Bigarren ohikoena %	Lehen eta bigarren ohikoena %
Herriko/inguruko liburu denda txiki batean	36,0	10,9	46,8
Liburu denda handi batean	17,5	18,0	35,5
Azalera handiko merkataritza gunek batean	12,1	8,2	20,3
Internet bidez	6,1	5,3	11,4
Liburu azoka batean	3,2	3,3	6,5
Besterik (Elkar, Circulo Lectores, Casa del Libro..)	4,3	2,9	7,3
Ez ditu erosten	17,0	17,0	17,0
Ed/Ee – Aukera bakarra erantzun du	3,8	34,5	3,8
Guztira	100,0	100,0	

Iturria: Siadeco, 2017

Establezimendu-mota bakoitzeko bezeroen ezaugarriak buruz, daturik azpimarragarrienak honakoak:

- Hurbileko denda txikiak: adinez gazteenak direnetan (16-25 urte) eta lurraldearen arabera Gipuzkoan, erreferentzialtasun-maila altuagoa dute.
- Liburu-denda handiak eta merkataritza azalera handiak: 26-34 urteko gazteen artean eta bereziki Iparraldeko biztanleen artean dute garrantzia gehiago. Merkataritza guneen kasuan, liburuak erosteko joera handiagoa da emakumezkoen artean.
- Internet: liburu digitalak erosten dituztenek, paper formatuko liburuak ere internet bidez erosteko ohitura gehiago dute. 16 urtetik 44 urtera artekoak, eta hortik gorakoak, bi multzo bereizi daitezke. 44 urtera arteko biztanleek ohiko liburuak internet bidez erosteko askoz ere ohitura gehiago dute. Gizonezkoen artean internet gehiago erabiltzen da liburuak erosteko.
- Liburu azokak: Bizkaiko herritarretan eta gizonezkoen artean dute garrantzia handiagoa liburu azokek.

Ohiko irakurleak direnek internet gehiago erabiltzen dute liburuak erosteko (%16); euskarazko liburuen irakurle direnetan liburu azoketan erosteko ohitura handiagoa da, %13, orokorrean %7koa denean.

22. Taula: Paper formatuan erositako liburuak erosten diren bi toki edo modu ohikoenak (bi ehunekoen batura), azken urtean ordaindutako liburu digital edo elektronikoren bat erosi ote duten arabera (% horizontalak)

	Azalera handiko merkataritza gune batean	Herriko/inguruko liburu denda txiki batean	Liburu denda handi batean	Liburu azoka batean	Internet bidez	Besterik	Ez ditu paperezko libururik erosten	Ed/Ee
Batere ez	19,7	46,9	34,8	6,0	8,7	6,7	18,5	3,6
Bat edo gehiago	24,0	50,2	42,2	11,0	30,6	4,1	5,2	1,0
Guztira	20,3	46,8	35,4	6,5	11,1	6,4	17,0	3,8


Iturria: Siadeco, 2017

16. Grafikoa. Paper formatuko liburuak erosteko tokirik ohikoenak (bi toki ohikoenen ehunekoen batura), adinari jarraiki (%)



Iturria: Siadeco, 2017.

17. Grafikoa. Paper formatuko liburuak erosteko tokirik ohikoenak (bi toki ohikoenen ehunekoen batura), lurraldeari jarraiki (%)



Iturria: Siadeco, 2017.

4.6. Liburuen erosketarako informazio-iturriak

Zein liburu erosi erabakitzeke, ezagun edo lagunen esanek eta erreferentziek garrantzia handia dute (%48). Komunikabideek (%34), internet bidez eskuratutako informazioak (%21) eta liburu-denden erakusleihoetan ikusi ahal izateak ere eragiten du (%19). Egin kontu aurreko ehunekoak, bi informazio-iturri nagusien ehunekoen baturak direla.

Adinari jarraiki, zenbat eta gazteago, orduan eta txikiagoa da hedabideen eragina eta handiagoa berriz internet eta sare sozialen eragina.


Lurraldeka berriz, erakusleihoetan ipiniak dauden liburuen eragina handiagoa da Araban, eta liburu-dendan bertan jasotako informazioaren garrantzia handiagoa da Iparraldeko liburu erosleen artean.

23. Taula. Liburu bat erosteko orduan, informazioa eskuratzeko bi modu ohikoenak (%)

	Lehen ohikoena %	Bigarren ohikoena %	Lehen eta bigarren ohikoena %
Komunikabideak	20,9	13,7	33,6
Internet	15,3	6,0	21,3
Sare sozialak	2,2	2,0	4,3
Lagunen bidez	29,3	20,5	49,7
Erakusleihoan ikusita	11,4	8,0	19,3
Liburu-dendan bertan	1,4	,9	2,2
Besterik	2,0	3,1	4,8
Ed/Ee – Ez du libururik erosten	17,4	45,9	17,4
Guztira	100,0	100,0	


Iturria: Siadeco, 2017

18. Grafikoa. Liburuak erosteko garaian gehien erabilitako informazio iturriak (bi toki ohikoenen ehunekoen batura), adinari jarraiki (%)



Iturria: Siadeco, 2017.

19. Grafikoa. Liburuak erosteko garaian gehien erabilitako informazio iturriak (bi toki ohikoenen ehunekoen batura), lurraldeari jarraiki (%)



Iturria: Siadeco, 2017.

4.7. Liburuen aukeraketarako faktoreak

Irakurgaia hautatzeko irizpideez galdetuta, faktorerik garrantzitsuena liburuaren gaia edo istorio mota da, 0tik 10erako eskalan 8,16 punturekin. Ezagunen aldeko iritzia da bigarren faktorerik garrantzitsuena (6,68 puntu), eta hirugarren, ohiko denda eskuragarri izatea (6,18).

Proposatutako gainerako faktore gehienek eragina apalagoa da (4,6 eta 5,2 artekoa); horien artean saltzailearen aholkuak, liburuaren inguruko kritikak, idazlea, prezioa edo best sellerra izatea.

Internet bidez erosi ahal izateari garrantzia maila baxuagoa ematen zaio (4,36), eta baxuena, euskaraz izateari (2,39).

Ezaugarri soziodemografikoen arabera, faktore desberdinei emandako garrantzia mailaren hurrenkera antzekoa izanik, badira aipagarriak gerta daitezkeen aldeak, hala nola, adinean gora egin ahala, ohiko liburu-dendan eskuragarri izateari garrantzia maila altuagoa ematen zaio (6,43 45-54 urtekoen artean, eta 6,50 65 urte edo gehiagokoaren artean), eta aldiz, liburua internet bidez erosteari garrantzia maila altuagoa gazteagoen artean (44 urtez behekoen artean); edota prezioari garrantzia maila handixeagoa ematen zaiola ikasleen artean (eta gazteen artean) eta emakumezkoen artean.


Euskaldunen artean, faktore horiek duen garrantzia maila oso antzekoa da; baina espero bezala, altuagoa da euskaraz izateari emandako garrantzia maila (5,28).

24. Taula: Irakurtzeko liburua eskuratzeko garaian, honako alderdi bakoitzak duen garrantzia (0tik 10erako eskalan, non 0=batere ez eta 10=oso garrantzitsua), euskara ezagutzari jarraiki - Batez besteko balioen rankinga (azken sei hilabeteetan liburu bat gutxienez irakurri dutenak soilik - %69,4)

Euskalduna		Ez euskalduna		Guztira	
Faktorea	Batez beste	Faktorea	Batez beste	Faktorea	Batez beste
Liburuaren gaia edo istorio mota	8,42	Liburuaren gaia edo istorio mota	8,05	Liburuaren gaia edo istorio mota	8,16
Ezagunen iritziak	6,95	Ezagunen iritziak	6,57	Ezagunen iritziak	6,68
Ohiko dendan eskuragarri izatea	6,27	Ohiko dendan eskuragarri izatea	6,14	Ohiko dendan eskuragarri izatea	6,18
Idazle ezagun eta ospe handikoa izatea	5,38	Saltzailearen aholkuak	5,18	Saltzailearen aholkuak	5,22
Saltzailearen aholkuak	5,29	Liburuari buruzko kritikak	4,98	Liburuari buruzko kritikak	5,03
Euskaraz izatea	5,28	Prezioa	4,87	Idazle ezagun eta ospe handikoa izatea	5,02
Prezioa	5,27	Idazle ezagun eta ospe handikoa izatea	4,87	Prezioa	4,99
Liburuari buruzko kritikak	5,16	Best sellerra izatea	4,56	Best sellerra izatea	4,61
Best sellerra izatea	4,71	Internet bidez erosi ahal izatea	4,22	Internet bidez erosi ahal izatea	4,36
Internet bidez erosi ahal izatea	4,70	Euskaraz izatea	1,04	Euskaraz izatea	2,39

Iturria: Siadeco, 2017

20. Grafikoa. Liburuen aukeraketan garrantzia duten faktoreak (Otik 10erako eskalan batez bestekoak)(Azken 6 hilabeteetan gutxienez liburu bat irakurri dutenak soilik-%69,4)



Iturria: Siadeco, 2017.

4.8. Liburu-denden aukeraketarako faktoreak

Liburu-dendaren hautaketan, berriz, erosotasunarekin eta eskainitako zerbitzu pertsonalarekin loturiko faktoreak dira baloratuenak, 7tik gorako puntuaketarekin; erosketa norbera kasa egiteko aukera izateak, liburu-dendan aukera generalista izateak, edo liburu-denda eskura egoteak dira gehien baloratutako alderdiak, dendako langileek eskainitako arretarekin batera. Baloratutako erosotasunaren beste alderdia, ordutegi zabalari emandako garrantzia (6,66).


Liburu-dendak espezializazio motaren bat (haur eta gazte literaturan, testu liburutan, gai jakin baten gaineko espezializazioan) edo aisialdi eskaintzaren bat egitea (kontzertuak, taberna..), badira ere sektore batek baloratutako alderdiak (0tik 10erako eskalan, 5aren inguruan kokatzen diren alderdiak dira).

Beherago euskararekin lotutakoak, bai langileen euskara ezagutzarekin nola eskainitako produktuak euskara hutsez izatearekin (4,46 eta 3,20 hurrenez hurren).

Euskaldunen artean, 7,39ra igotzen da dendako langileek euskaraz jakiteari emandako garrantzia maila, eta laugarren postuan kokatzen da; eta euskarazko produktuak soilik eskaintzea 5,34ra (13. postura).

Euskarazko liburu irakurle direnek garrantzia handiagoa ematen diote langileak euskaldunak izateari (8,00) eta euskarazko produktuak soilik eskaintzeari (5,93).

21. Grafikoa. Liburu-denden kokapena, zerbitzu eta eskaintzako faktore ezberdinek duten garrantzia
(0tik 10erako eskalaren batez besteko balioak)



Iturria: Siadeco, 2017.

5

Musika kontsumorako ohiturak

Musika
kontsumoa

5.1. Adierazle orokorrak

Musika entzuleak

Hamar euskal herritarretik 6k musika egunero edo ia egunero entzuten dute, eta 10etik ia 2k gutxienez astean behin. 10etik 1ek ez du inoiz ipintzen.

Gazteen artean, altuagoa da musika entzuteko ohitura (16-25 urtekoen artean, %90ek egunero edo ia egunero entzuten dute), eta ohitura jaisten doa adinean gora egin ahala (65 urte edo gehiago dituztenen artean, %45,8k).

25. Taula: Musika zaletasuna: Musika ipintzeko maiztasuna, adinaren arabera (% horizontalak)

	Egunero edo ia egunero	Astero	Hilero	Gutxienez hiru hilean behin	Gutxienez urtean behin	Inoiz ez ala inoiz ez	Ed/Ee	Guztira
16-25 urte	90,1	6,1	0,7	1,7	0,0	1,3	0,0	100,0
26-34 urte	65,4	21,3	1,1	3,2	1,2	7,8	0,0	100,0
35-44 urte	70,0	16,0	3,8	4,3	1,2	4,6	0,0	100,0
45-54 urte	56,3	21,0	6,5	4,8	2,7	8,7	0,0	100,0
55-64 urte	49,8	25,3	3,2	5,8	2,9	12,2	0,8	100,0
65 edo gehiago	45,8	19,1	4,6	8,0	2,9	19,1	0,5	100,0
Guztira	60,6	18,5	3,8	5,0	2,0	9,9	0,2	100,0

Iturria: Siadeco, 2017

Musika entzuteko erabilitako gailuak

Musika non entzuten da gehien, zein eratako gailua erabiltza? Irratia, etxeko musika katea, smartphonea?

15 urtetik gorako herritarren artean, musika entzuteko gehien erabilitako gailua irratia da (%42), 10 puntuz beherago dator smartphonea, MP4a (%31), eta atzetik musika katea (%27) eta ordenagailua (%22). Ehuneko horiek, gehien erabilitako bi gailuen portzentajeen baturak dira.

26. Taula. Musika entzuteko, gehien erabilitako bi gailu edo dispositiboak, garrantzitsuenetik hasita (%)

	Lehen ohikoena %	Bigarren ohikoena %	Lehen eta bigarren ohikoena %
Mobila,smartphonea, MP4a	22,6	8,7	31,2
Irratia (etxekoa, kotxekoa)	29,0	13,4	42,3
Telebista	2,6	3,9	6,5
Musika katea (etxekoa, kotxekoa)	15,6	11,5	27,0
Ordenagailua	10,5	11,5	22,0
Tableta	1,8	2,5	4,2
Besteren bat	0,8	0,9	1,7
Ed/Ee	0,1	-	0,1
Ez du musika ipintzen (hilean behin baino gutxiago)	17,1	47,7	17,1
Guztira	100,0	100,0	

Iturria: Siadeco, 2017

Zenbat eta gazteagoa izan orduan eta handiagoa da teknologia berriei loturiko gailuak erabiltzeko ohitura; hartara, mobila, smartphonea, MP4a bezalako gailuak erabiltzen dituzte 16-25 urte arteko gazteen %83k eta ordenagailua %43k. Aldiz, etxeko nahiz kotxeko irratia eta musika katearen erabilera handitzen doa adinean aurrera egin ahala (65 urte edo gehiagokoen artean %47 eta %35 hurrenez hurren).

Irratia gehiago erabiltzen da emakumezkoen artean (%45), eta batez ere Iparraldean, non %59 dira musika entzuteko baliatzen dutenak. Gizonezkoen artean, aldiz, musika katea eta ordenagailua erabiltzen dira gehiago.

Musika entzuteko gehien erabilitako euskarriak

Musika entzuteko gehien erabilitako euskarria, ikusi berri dugunarekin bat etorritz, irratia da, (%43k aipatu dute gehien erabilitako bi euskarrietako bat bezala), eta honen atzetik datoz, euskarri fisikoren bat (CD, DVD, biniloa) erabiltzen dutenak (%33), internet bidez doan musika jaisten dutenak (%29) eta musika artxibo digitalak doan eskuratzen dituztenak (%20).

Musika entzuten dutenen artean, adinean gora egin ahala, gora egiten du bai irratia erabilerak, baita euskarri fisiko batenak ere; eta aldiz, doan eskuratzen dituztenen portzentajeak gora egiten du adinean behera egin ahala.

Musika artxibo digitalak (edo internet bidezkoak) ordaintzen dituztenen portzentajeak baxuak dira oro har, (%2-%3), baina apur bat altuagoak herritar gazteen artean (%5-%6 16-25 urte bitartekoen artean).

27. Taula. Musika entzuteko, gehien erabilitako bi euskarriak, garrantzitsuenetik hasita (%)

	Lehen ohikoena %	Bigarren ohikoena %	Lehen eta bigarren ohikoena %
Euskarri fisikoa (CD, DVD, biniloa)	21,6	11,3	32,7
Irratia	27,8	15,1	42,9
Doan eskuratutako musika artxibo digitalak	12,8	7,7	20,5
Erositako musika artxibo digitalak	1,0	1,4	2,4
Internet bidez, doan	17,3	11,9	28,8
Internet bidez, ordainduta	1,3	1,9	3,2
Besteren bat	1,0	1,5	2,5
Ez du musika ipintzen	17,2	49,2	17,2
Euskarri fisikoa (CD, DVD, biniloa)	21,6	11,3	32,7
Guztira	100,0	100,0	

Iturria: Siadeco, 2017

Musika estiloa

Gustuko musikaz galdetuta ere, maiz zaila gertatzen da estilo bakarra erantzutea, baina ahalegina egiteko eskatu zaie herritarrei, gustukoen dutena ezagutze aldera. Hala ere, hainbat kasutan zailegia gertatu zaie, eta %8 inguru dira era guztiko musika gustuko duela erantzundakoak.

Estilo jakinetara etorrita, pop-rocka da gehien aipatutako estiloa; estilo handi eta zabala, bertan biltzen baitira, pop, rock, edo rock & roll, edo blues esandakoak, adibidez. %37 inguruk aipatzen dute estilo hau gustukoena bezala.

Musika klasikoa da bigarren aipatuena (sinfonikoa, opera, zarzuela, edo besterik gabe musika klasikoa gustuko dutenak), %17 inguru; eta jarraian datoz, nabarmen beherago musika etnikoa (%6) eta euskal musika erantzundakoak, horien barnean, bai euskal musika herrikoia edo tradizionala nola egungo euskal musika aipatu dutenak (%6).

Musika melodikoa dute gustukoen %3 inguruk, eta %1-%2 artean dira honakoren bat erantzundakoak: jaza, disko-teknos musika, rap-a, heavy-a, punk-a, ska edo reggae-a.

Emakumezkoen artean gehiago dira pop-rocka lehenetsi dutenak (%40), eta gizonezkoen artean berriz, -orotara %9 izanik- rap-a, punk-a, disko-teknos musika edo heavy-a gustukoen dutenak.

Pop-rock estiloa gustukoen dutenak, %50aren inguruan kokatzen dira 54 urte arteko adin-tarteetan, baina behera egiten dute 55 urtetik gorakoan artean, eta %11 dira 65 urtetik gorakoan artean.

Aitzitik, musika klasikoa lehenesten dutenak, gora egiten dute adinean aurrera egin ahala, adin-tarte gazteenean %3 izatetik, 65 urtetik gorakoan artean %38 izateraino.

Joera bertsua da musika etnikoaren eta euskal musikaren kasuan; 25 urtez behekoen %4 inguruk aipatzetik, gora egiten du gutxinaka, 65 urtetik gorakoan artean %11k aipatzeraino.

25 urtez beheko gazteen artean, gehiago dira ska/reggae-a (%7), rap-a (%6) edo punk-a (%4) aipatzen dutenak.


Euskaldunen artean %18 dira beraien musikariek gustukoenaz galdetuta euskal musika aipatu dutenak (egungoa edo herrikoia); ez euskaldunen artean, aldiz, %2.

28. Taula. Gehien gustatzen zaizun musika estiloa (%)

	%
Pop-rocka	37,3
Klasikoa	16,9
Folka,etnikoa	6,4
Euskal musika, egungoa edo herrikoia	6,3
Musika melodikoa	3,4
Jazza	2,3
Heavy-a	1,6
Disko-tekno musika	1,5
Rap-a	1,4
Ska, reggae	1,4
Punk-a	1,1
Denetarik	8,4
Besterik	6,4
Ez dagokio, ez du entzuten	2,7
Ed/Ee	2,9
Guztira	100,0

Iturria: Siadeco, 2017

22. Grafikoa. Musika-ohituren adierazle orokorrak (%)



Iturria: Siadeco, 2017.

5.2. Musika-diskoen erosle direnen ezaugarriak

10 herritarretik 3k erosi dute diskoren bat azken urtean formatu fisikoan (CD , DVD, binilo...): 10etik 1ek 1-2 disko erosi ditu, beste batek 3-5 artean, eta beste batek 5 baino gehiago. 10etik 7k, beraz, ez dute diskorik erosi azken urtean.

Euskarazko diskoren bat erosi dutenak gutxiago dira, (%12), eta horien artean gehienek 1-2 disko erosi dituzte..

29.Taula: Azken urtebetean zenbat disko erosi dituzu formatu fisikoan guztira (CD, DVD, binilo...)? Eta euskarazkoak? (%)


	Guztira	Euskaraz-koak
	%	%
Bat edo gehiago	29,5	12,2
1-2 artean	11,2	7,3
3-5 artean	9,5	3,8
6-10 artean	5,1	0,6
10 baino gehiago	3,7	0,5
Batere ez	69,9	87,1
Ed/Ee	0,6	0,7
Guztira	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2017


Iparraldeko herritarren artean, disko erosleak %51 dira, (Hegoaldeko lurraldeetan –Bizkaian eta Gipuzkoan- %29tik pasatzen ez den artean); eta adinean gora egin ahala, behera egiten du disko erosleen portzentajeak, 15-25 urte artekoetan %40 izatetik, 65 urte edo gehiagokoen artean, %16 besterik ez izateraino.

Euskarazko diskoen eskuratzeari lotuta, euskaldun izan ala ez da emaitzetan gehien eragiten duen aldagaia; euskaldunen %30ek disko bat edo gehiago erosi dute, eta aldiz ez euskaldunen %6k.

23. Grafikoa. Musika-diskoen erosle direnen ezaugarri sozio-demografiko eta linguistikoak (%)



24. Grafikoa. Euskarazko musika-diskoek erosi direnen ezaugarri sozio-demografiko eta linguistikoak (%)



Iturria: Siadeco, 2017.

1 edo 2
3-5 artean
5 baino gehiago

5.3. Formatu digitaleko musika erosi egiten duten eta doan eskuratzen dutenen ezaugarriak

Musika gailu digitalean entzuteko ohitura herritarren artean zabaldua dagoela ikusi berri dugu, batez ere herritar gazteen artean, baina ez dago formatu digitaleko musika erosteko ohiturarik.

Herritarren %26k badute formatu digitaleko musika doan eskuratzeko ohitura, baina aldiz %6 besterik ez dira formatu digitaleko musika erosi dutenak. Euskal musikaren kasuan, erdira jaisten dira portzentaje hauek: %13 dira euskal musika gehiago ala gutxiago doan eskuratu dutenak formatu digitalean, eta %2 erosi dutenak.

30. Taula: Azken urtebetean zenbat kanta eskuratu dituzu, erosita nahiz doan, guztira? Eta euskal musikarien zenbat kanta? (%)


	Erosi		Doan eskuratu	
	Guztira	Euskal musikarienak	Guztira	Euskal musikarienak
	%	%	%	%
Bat edo gehiago	5,7	2,3	25,8	12,8
1-10 artean	2,7	1,3	3,6	5,4
11- 25 artean	1,1	0,2	5,3	2,4
26 - 50 artean	0,7	0,1	4,8	1,9
50 – 100 artean	0,4	0,4	4,3	1,6
100 – 200 artean	0,2	0,1	3,5	0,9
200 baino gehiago	0,6	0,2	4,4	0,6
Batere ez	93,1	96,1	73,0	85,9
Ed/Ee	1,3	1,6	1,2	1,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2017

Musika doan eskuratzeko ohitura –bai orokorra, bai euskal musikariena- adinarekin erabat lotuta dago, eta 16-25 urtekoen artean %66 eta %33 izatera iristen da hurrenez hurren.

Formatu digitaleko erosleen artean berriz, gazteenekin batera, 35-44 urte artekoak nabarmentzen dira, horien artean %10 baitira kantaren bat erosi dutenak, eta Iparraldeko herritarrek (%10 erosleak). Euskal musikarien kantak erosi dituztenen artean, berriz, Iparraldekoak (%5) eta 34 urtez azpikoak aipa daitezke (%4-%5 artean).

25. Grafikoa. Musika formatu digitalean erosten dutenen eta doan eskuratzen dutenen ezaugarri sozio-demografiko eta linguistikoak (%)



Iturria: Siadeco, 2017.

5.4. Musika-diskoak aukeraketarako faktoreak

Musika-diskoak aukeratzeko faktoreen artean, garrantzitsuena, eta besteeikiko alde handiz, “generoa gustukoa izatea” agertzen da (9 puntuz). Bigarren mailan, eskuratzeko erosoia (ohiko dendan eskuragarri egotea) eta doakoa izatea (6,8 puntuz).

Zertxobait beherago, “ezagunen iritziak” (5,96) eta eskuratzeko erraztasunarekin loturiko beste bi alderdi, internet bidez erosteko aukera izatea (5,75) eta prezioa (5,68),

Auto-ekoizpena izatea (5,20), eta taldearen edo diskoaren arrakasta edo ospearekin loturiko faktoreak datoz ondoren (5,0 punturen inguruan), eta 4,4 puntuz euskal edo euskarazko musika/taldea izatea. Azken postuan, diskoari egindako kritikak agertzen dira (4,38 puntu)

Euskarazko edo euskal musika/taldea izatea nabarmen garrantzitsuagoa da euskaldunentzat (6,38 eta 6,14 puntu jasotzen dituzte), ez euskaldunentzat baino (3,42 eta 3,33 hurrenez hurren),


Adinean behera egin ahala, altuagoa da doan eskuratzeko aukerari eta internet bidez erosteari emandako garrantzia (7,83 eta 7,07 puntu, 16-25 urte bitartekoen artean), eta aldea apalagoa bada ere, baita euskarazko edo euskal musika/talde izateari ere (4,8tik gora).

31. Taula: Disko bat eskuratzeko garaian, honako alderdi bakoitzak duen garrantzia (0tik 10erako eskalan, non 0=batere ez eta 10=oso garrantzitsua), euskara ezagutzari jarraiki - Batez besteko balioen rankinga (azken urtebetean musika eskuratu dutenak soilik - %40,6)

Euskalduna		Ez euskalduna		Guztira	
Faktorea	Batez beste	Faktorea	Batez beste	Faktorea	Batez beste
Musika generoa zure gustukoa izatea	9,00	Musika generoa zure gustukoa izatea	9,00	Musika generoa zure gustukoa izatea	9,00
Doan eskuratzeko aukera izatea	6,66	Ohiko dendan eskuragarri egotea	6,96	Ohiko dendan eskuragarri egotea	6,81
Ohiko dendan eskuragarri egotea	6,56	Doan eskuratzeko aukera izatea	6,83	Doan eskuratzeko aukera izatea	6,77
Euskarako musika/taldea izatea	6,38	Ezagunen iritziak	5,80	Ezagunen iritziak	5,96
Ezagunen iritziak	6,22	Internet bidez erosi ahal izatea	5,66	Internet bidez erosi ahal izatea	5,75
Euskal musikari/taldea izatea	6,14	Prezioa	5,59	Prezioa	5,68
Internet bidez erosi ahal izatea	5,89	Musikari/Talde ezaguna eta ospetsua izatea	4,98	Autoekoizpena izatea	5,20
Prezioa	5,83	Autoekoizpena izatea	4,95	Musikari/Talde ezaguna eta ospetsua izatea	5,13
Autoekoizpena izatea	5,61	Salmenta edo arrakasta handikoa izatea	4,47	Salmenta edo arrakasta handikoa izatea	4,57
Musikari/Talde ezaguna eta ospetsua izatea	5,41	Egindako kritikak	4,24	Euskarako musika/taldea izatea	4,45
Salmenta edo arrakasta handikoa izatea	4,74	Euskal musikari/taldea izatea	3,42	Euskal musikari/taldea izatea	4,42
Egindako kritikak	4,61	Euskarako musika/taldea izatea	3,33	Egindako kritikak	4,38

Iturria: Siadeco, 2017

26. Grafikoa. Zein musika-disko eskuratu erabakitzerakoan garrantzia duten faktoreak (0tik 10erako eskalaren batez bestekoak) (azken urtebetean musika eskuratu dutenak soilik - %40,6)



Iturria: Siadeco, 2017.

5.5. Musika kontsumorako ohituretako joera aldaketak

Entzuketa maila

Irakurketan bezala, orokorrean musika kontsumorako ohituratan azken bost urteetan izandako bilakaeraz galdetu diegu elkarrizketatuei, musika entzuteari denbora gero eta gehiago ala gero eta gutxiago eskaini dioten jakiteko.

Herritarren erdiak baino gehiagok (%51ek) adierazi dute ez dutela ez gehiago ez gutxiago entzuten, berdin baizik. Baina aldaketaren bat adierazitakoen artean, musika gero eta gehiago entzuteko joera dagoela antzeman daiteke: honela, gehiago izan dira azken bost urteetan gero eta musika gehiago entzun dutela erantzundakoak (%27), gero eta gutxiago erantzun dutenak baino (%22). Eta aurrera begira jarrita ere, hemendik bost urteetara orain baino musika gehiago entzutea espero dutenak (%22) gehiago dira, orain baino gutxiago entzungo dutela adierazitakoak baino (%7).

Azken 5 urteetako entzuketa mailaren bilakaera positiboa da 44 urte artekoetan, eta aldiz, negatiboa, hortik gorakoetan. Bilakaera positiboa izan dutenen artean ere alde handia dago adin-tarte batetik bestera, zenbat eta gazteagoa izan orduan eta positiboagoa izan baita bilakaera. Datozen 5 urteetara egindako aurreikuspenetan, 65 urte bitarteko adin-tarte guztietan, gehiago dira bilakaera positiboa izango dela pentsatzen dutenak, negatiboa espero dutenak baino.

32. Taula: Musika entzuteko ohituraren azken 5 urteetako bilakaera eta datozen 5 urteetarako aurreikuspena (% guztiekiko)

		Datozen 5 urteak				Guztira
		Gero eta gehiago	Gero eta gutxiago	Berdin	Ed/Ee	
Azken 5 urteak	Gero eta gehiago	17,2	0,0	9,1	0,4	26,7
	Gero eta gutxiago	3,2	6,6	11,5	1,0	22,2
	Berdin	1,5	0,0	49,0	0,4	51,0
	Ed/Ee	0,0	-	-	0,1	0,2
	Guztira	21,9	6,6	69,6	1,9	100,0

Iturria: Siadeco, 2017.

Euskarri digitalen erabilera

Musika entzuteko euskarri digitalen erabilera mailan aldaketarik ez dutela izan erantzun dute 10etik ia 6k, eta are zertxobait gehiago dira datozen 5 urteetan aldaketari aurreikusten ez dutenak; baina ohitura aldaketa izan dutela adierazitakoetatik, gehien gehienek, azken 5 urteetan euskarri digitala gero eta gehiago erabili dutela adierazten dute (%34), eta aurrerantzean ere, gero eta gehiago erabiltzea aurreikusten dutela (%27).

Adin-tarte guztietan egin du gora azken 5 urteetan euskarri digitalen erabilerak, baina adinean behera egin ahala, orduan eta altuagoa da portzentajea; 65 urtetik gorakoan artean, %9k erabili dute gero eta gehiago azken 5 urteetan, eta 16-25 urtekoen artean, aldiz %72k.

Datozen 5 urteetarako aurreikuspenetan ere joera bera antzematen da; adin-tarte guztietan espero da euskarri digitalak gehiago erabiltzea, baina 65 urtetik gorakoetan %7k, eta 16-25 urte bitartekoan artean, %59k.

33. Taula: Musika euskarri digitalean entzuteko ohituraren azken 5 urteetako bilakaera eta datozen 5 urteetarako aurreikuspena (% guztiekiko)

		Datozen 5 urteak				Guztira
		Gero eta gehiago	Gero eta gutxiago	Berdin	Ed/Ee	
Azken 5 urteak	Gero eta gehiago	24,7	0,2	8,6	0,4	33,9
	Gero eta gutxiago	0,4	2,5	1,9	0,1	5,0
	Berdin	1,5	0,3	57,1	0,3	59,2
	Ed/Ee	0,1	-	-	1,9	2,0
	Guztira	26,7	3,0	67,5	2,8	100,0

Iturria: Siadeco, 2017.

Doako musikaren erabilera

Herritar gehienek kasuan, ez da bilakaerarik eman doako musika entzuteko ohituran azken 5 urteetan (%65), eta ez da espero datozen 5 urteetan ematea (%70). Hala ere, doako musika entzutera gero eta gehiago jotzen da eta azken 5 urteetan gero eta gehiago entzun dutenak %26 dira, eta aurrera begira ere doako musika gero eta gehiago entzutea espero dutenak, %23.

Musika digitalarekin ikusi bezala, azken 5 urteetan doako musika gehiago eskuratu dutenen portzentajea altuagoa da herritarrek zenbat eta gazteagoak izan (%62 dira 16-25 urte bitartekoan artean eta %39 26-35 urtekoetan), eta datozen 5 urteetan ere gero eta doako musika gehiago eskuratzea espero dutenak %50 dira gazteen artean, eta %32 26-35 urtekoetan.

34. Taula: Doan eskuratutako musika entzuteko ohituraren azken 5 urteetako bilakaera eta datozen 5 urteetarako aurreikuspena (% guztiekiko)

		Datozen 5 urteak				Guztira
		Gero eta gehiago	Gero eta gutxiago	Berdin	Ed/Ee	
Azken 5 urteak	Gero eta gehiago	20,9	0,2	5,2	0,2	26,4
	Gero eta gutxiago	0,6	3,2	1,5	0,1	5,4
	Berdin	1,2	0,1	63,7	0,3	65,3
	Ed/Ee	0,0	-	0,0	2,9	3,0
	Guztira	22,7	3,4	70,4	3,5	100,0

Iturria: Siadeco, 2017.

Euskarazko musika

10 herritarretatik 8k erantzun dute euskarazko musikaren entzuketan ez dutela aldaketarik izan eta aurrerantzean ere maila bertsuan entzungo dutela. Baina gainerakoen artean, bilakaera positiboa izan da azken 5 urteetan, eta hala izatea aurreikusten da datozen 5 urteetan ere; izan ere 8 puntuko aldea dago gero eta gehiago entzun dutenen eta gero eta gutxiago erantzun dutenen artean, bai azken 5 urteetako bilakaeran, bai datozen 5 urteetarako aurreikusitakoan.


Azken 5 urtetan eman den bilakaera, adin-tarte guztietan positiboa den arren, aldea nabarmen handiagoa da 16-34 urte bitartekoen artean; honela, bi adin-tarte gazteenetan, 17-18 puntuko aldea dago azken 5 urteetan gero eta euskarazko musika gehiago eta gero eta gutxiago entzun dutenen artean; eta baita datozen 5 urteetan gero eta gehiago eta gero eta gutxiago entzutea espero dutenen artean ere. Hau da, adinagatik bilakaera handiagoa espero daitekeen adin-tarteetan, euskarazko musikaren entzute mailak azken urteetan gora egin du, eta datozenetan ere gora egitea aurreikusten da.

35. Taula: Euskarazko musika entzuteko ohituraren azken 5 urteetako bilakaera eta datozen 5 urteetarako aurreikuspena (% guztiekiko)

		Datozen 5 urteak				Guztira
		Gero eta gehiago	Gero eta gutxiago	Berdin	Ed/Ee	
Azken 5 urteak	Gero eta gehiago	8,9	0,1	3,8	0,3	13,2
	Gero eta gutxiago	0,6	1,6	2,4	0,2	4,9
	Berdin	1,3	0,1	78,3	0,6	80,3
	Ed/Ee	-	-	-	1,6	1,6
	Guztira	10,9	1,8	84,6	2,7	100,0

Iturria: Siadeco, 2017.

27. Grafikoa. Musika entzuteko azken 5 urteetako eta datozen 5 urteetako joerak (gero eta gehiago eta gero eta gutxiago erantzun dutenen arteko diferentzia) (%)



Iturria: Siadeco, 2017.

5.6. Kontzertuetako entzuleak

Musika zaletasunari lotuta, azken urtean zehar herritarrek bertaratutako kontzertu kopuruen datuak ere eskuratu dira: Hamar herritarretik 4, kontzerturen batean izan dira, eta 10etik 2, euskarazko kontzerturen batean.

Joandako kontzertu kopuruaz, 10 herritarretik 2, 1-2 kontzertutara joan da, 10etik 1, 3-5 kontzertutara, eta 10etik 1, 5 kontzertu baino gehiagotara.

Euskarazko kontzertuetara joan direnen kopuruak baxuagoak dira; 10etik 1 joan da 1-2 kontzertutara, eta beste bat eskas, 3 kontzertu edo gehiagotara.

Honela estimatu ahal izango genuke, euskarazko kontzertu bakoitzeko, euskaraz ez diren beste bi kontzertu izan direla.

36.Taula: Azken urtean zenbat kontzertutan izan den, eta euskarazko zenbat kontzertutan (%)

	Kontzertu kopurua guztira %	Euskarazko kontzertu kopurua %
Bat edo gehiago	42,9	19,7
1-2 artean	18,2	11,2
3-5 artean	12,4	5,4
6-10 artean	5,9	1,9
10 baino gehiago	6,4	1,2
Batere ez	56,8	79,5
Ed/Ee	0,3	0,8
Guztira	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2017

Musika kontzertuetara joateko ohitura altuagoa da herritarra zenbat eta gazteagoa izan (%60 dira 16-25 urteko gazteen artean kontzerturen batera joandakoak, eta %32 aldiz 65 urtez gorakoetan). Ez hori bakarrik, urtean zehar izandako kontzertu kopuruan ere eragin handia du adinak, eta 6 kontzertu edo gehiagotan izan dira azken urtean gazteen %24.

Gizonezkoen artean, zertxobait gehiago dira kontzerturen batera joandakoak (%45), baina kurioski aldea ez dago behin edo bitan joandakoen artean (non emakumezkoen artean gehiago diren), baizik eta urtean 3 kontzertu edo gehiago, eta batez ere urtean 6 kontzertu edo gehiagotara joan direnen artean (emakumezkoen %10 eta gizonezkoen %15).

Iparraldeko herritarren artean gehiago dira kontzerturen batera joandakoak (%57) eta Nafarroa eta batez ere Araban, gutxiago (%37 eta %31 hurrenez hurren).

Kontzerturen batera joandakoen erdiak baino zertxobait gutxiago, euskarazko kontzerturen batera joan dira (%20); beren profila, oraintxe ikusi berri dugunarekin bat dator: euskarazko kontzerturen batean izan direnen portzentajeak gora egiten du adin-tartean behera egin ahala, eta izandako kontzertu kopuruan ere eragina du adinak (gazteenen %23 izan dira euskarazko 3 kontzertu edo gehiagotan). Gizonezkoen artean ere gehiago dira, 3 kontzertu edo gehiagotan izan direnak gehiago direlako (%11, eta emakumezkoen artean %7); eta Iparraldeko herritarren artean %41 dira euskarazko kontzerturen batean izan direnak.

6

Ondorioak

Ondorioak

Ikerlanaren dimentsioa

Euskal Herri mailakoa da herritarren liburu eta musikaren kontsumorako ohiturei buruz egindako ikerlan hau

2.500 inkesta egin dira guztira ikerlan honetarako eta azterlanaren unibertsoa, Euskal Herri osoko 16 urte edo gehiagoko herritarrena izan da, guztira 2.641.711 biztanle inguru. Horietatik milioi bat inguru Bizkaian bizi dira (%38), 600 mila inguru Gipuzkoan (%23), 535 mila inguru Nafarroan (%20), 274 mila inguru Araban (%10) eta horietatik gehienak Gasteizen eta gainerako 238 mila biztanle inguru (%9) Iparraldean.

Hedabideen kontsumoa

Euskarazko hedabideen kontsumoa, erdarazkoen oso atzetik dago, baita herritar euskaldunen artean ere

10 herritarretatik 1ek aipatu du ETB1 lehen aukera gisa eta %0,1ek baino ez Hamaika Telebista. Egunkarietan, lehen aukera gisa euskarazkoren bat adierazi dutenak %3,8 dira, gehienek Berria (%3,1). Herritar euskaldunetara mugatuta, gehien irakurritako bi hedabideen artean euskarazkoren bat, 5etik 1ek aipatu du (%21).

Sare sozialen erabilera-mailan sekulako aldeak daude adinaren arabera, 45etik gorakoetan gehiago dira oraindik ere sare sozialik erabiltzen ez dutenak, 16tik 25era artekoetan berriz sare sozialen erabilera orokortua dago, 10 gaztetatik 9k erabiltzen baitituzte.

Irakurketa-ohiturak

10 herritarretatik 7 dira liburu irakurleak (%70), %58 ohiko irakurleak eta %12 noiz behinkakoak

Liburuak irakurtzeko ohitura gehiago dute Iparraldeko Euskal Herritarrek. Euskal Herri osoko inkestatuen datuei erreparatuta, liburu irakurleak diren herritarrak %70 izanda, emakumezkoetan altuagoa da liburuaren irakurzaletasuna (%75) eta goi mailako ikasketak dituztenetan ere (%77). Adinez 16-25 urte arteko gazteek irakurtzen dute liburu gehien baina ikasketei loturiko liburuaren eraginarekin du zerikusia horrek.

Euskarazko liburuen irakurleak, 10 herritar euskaldunetatik 4 dira (%42), biztanleria osoarekiko %11.

Adinez, 16-25 urte artekoen artean proportzionalki gehiago dira euskarazko liburuen irakurle baina ezin ahaztu ikasketen eragina. Lurraldeka, biztanle euskaldunak eta ez euskaldunak kontuan hartuta, Gipuzkoa da euskarazko liburu irakurleen ehuneko altueneko lurraldea; aldiz euskaldunak diren biztanleak bakarrik hartuta Iparraldeko euskaldunak euskarazko liburuen irakurleago dira.

Euskaraz eta erdaraz paperean argitaratutako liburuen artean, aisialdiari loturiko irakurketan, gutxienez zazpi aldiz gehiago dira erdaraz irakurritakoak

Biztanleria osoarekiko urtean erdaraz liburu 1 eta 10 artean irakurtzen dituzten herritarrek 10etik 4 (%41) dira eta euskarazkoak %8; bost bider portzentaje altuagoa erdarazkoetan. Urtean erdaraz 10 liburutik gora irakurtzen dituztenak berriz %19 dira eta euskarazkoak %1; 19 aldiz portzentaje altuagoa erdarazkoetan. Guztira, gutxienez erdarazko liburu bat irakurritakoak %60 izanik eta euskarazkoak biztanleria osoarekiko, %9, erdarazkoen irakurketa gutxienez 7 aldiz altuagoa dela ondorioztatu dugu.

Aisialdiko eta ikasketei loturiko irakurketaren artean bereizketa bat eginda, euskaraz argitaratutako liburuek proportzionalki pisu handiagoa dute ikasketei loturiko irakurketan.

Euskaldunak diren herritarren artean ere, euskaraz argitaratutako liburuak gutxiago irakurtzen dira

Biztanleriaren %56 erdarazko liburuen ohiko irakurlea da; aldiz biztanleria euskaldunaren %23 da euskarazko liburuen ohiko irakurle. Euskaldunak direnetan, azken urtean aisialdian gutxienez erdaraz liburu bat irakurritakoak %60, euskaraz %33.

Formatu digitalaren erabilera erdarazko liburuetan, euskarazkoetan dagoenaren oso gaineratik dago

Aisialdi momentuan azken urtean erdaraz formatu digitalean gutxienez liburu bat irakurritakoak 5 biztanletatik bat (%19,7) izanik, euskaldunen artean euskarazko liburu digitalen pareko ehunekoa %4,2 da

Aisialdiko irakurketa ohiturei erreparatuta, erdarazko liburuetan, paper formatua eta formatu digitalaren arteko erlazioa 3tik 1ekoa da, ohiko formatuan hiru aldiz liburu gehiago irakurtzen dira erdaraz. Euskarazko liburuetan berriz, ia 7tik 1ekoa da erlazio hori, euskaraz irakurritako liburu digital bakoitzeko, paper formatuko 7 irakurtzen dira.

Formatu digitaleko liburuen eta doan eskuratutako liburuen (paperean nahiz digitalean) erabilerak goranzko joera izaten jarraituko du

Gehiago dira gero eta gehiago erabiliko dituztela erantzun dutenak, alderantzizkoa erantzun dutenak baino; liburu digitalaren kasuan 12 puntukoa da alde hori, bai azken 5 urteetan eta baita datozen 5 urteei begira ere. Mailegu bidez edo norbaitek utzita edo oparituta eskuratutako liburuetan (paperean nahiz digitalean), goranzko joera erakusten duen alde hori, 8 puntukoa da; kasu honetan ere bai azken 5 urteetan, eta baita datozen 5 urteei begira jarrita ere; gazteenetan (16-25 urte) gainera, hiru bider altuagoa da (24 puntukoa) diferentzia hori, hau da, doako erabilerak oraindik eta indar handiagoa izango du.

Liburuen erosketa-ohiturak

3 biztanletatik 2k (%66) erosi dute azken urtean gutxienez liburu bat paper formatuan. Hala ere, erosi gabe paper formatuan liburuak eskuratzen dituzten herritar irakurleen multzoa handia da

10 biztanletik ia 4k (%38) bost liburu baino gutxiago erosi dituzte, eta 10etik 3k (%28), 5 liburu baino gehiago. Maileguan eskuratutako liburuak, erositakoen erdiak baino gutxiago dira; baina herritarren erdia baino gehiago badira, norbaitek oparituta edo utzita, azken urtean gutxienez liburu bat eskuratu dutenak.

Liburu digitalak ordainduta eskuratu dituzten herritarren multzoa adierazgarria da (%10,7)

Liburu digitalak ordaintzen dituztenen proportzioa altuagoa da 35-44 urte artekoen artean (%16) eta liburuak formatu digitalean ordaindu gabe eskuratzen dituztenena berriz, hurrengo adin tartean da altuena, hau da, 45-54 artekoetan (%13,6 izanik).

Gertuko edo herri bertako liburu-dendak (%47), liburu-denda handiak (%36) eta merkataritza gune handietako saltokiak (%20) dira liburuak erosteko tokirik ohikoenak

Aurreko ehunekoak, bi toki ohikoenen ehunekoan baturak dira eta 10 liburu erosletatik 1ek (%11) internet bidez ere erosten ditu liburuak, paper formatuan. Liburu-denda handiak aipatu dituztenen proportzioa altuagoa da 26tik 34ra arteko gazteetan eta azalera handien kasuan berriz, 26tik hasi eta 54 urte arteraino zabaltzen da toki horietan liburuak erosteko joera handiagoa duten biztanleen multzoa.

Ohiko liburu-irakurle direnek, internet bidez liburuak erosteko joera handiagoa dute (% 13).

Gazteentzat, kultur produktuen kontsumorako ere, gero eta erakusleiho garrantzitsuagoa da internet

44 urtera artekoen eta hortik gorakoen artean, bereizketa nahiko argia egin daiteke; 44 urtera artekoetan 10etik ia 2k internet bidez paper formatuko liburuak erosten dituzte, 45etik gorako helduetan, gutxiago jotzen da internetera eta adinean zenbat eta gorago, orduan eta gutxiago. Bestalde, zein liburu erosi aukeratu behar denean ere, internet bidez erosteko aukera izateari garrantzia handiagoa ematen diote 44 urtez beherako herritarrek.

Formatu digitaleko liburuak erosi egiten dituenak, paper formatuko liburuak internet bidez erosteko ohitura gehiago du

Orokorrean 10 liburu-erosletatik 1 (%11) izanik internet bidez paper formatuko liburuak erosten dituenak, ehuneko hori hirukoiztu egiten da (%31) liburu digitalak ordainduta eskuratzen dituzten irakurleen artean.

